



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko ekainaren 15ean

50 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

—2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

—Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Lege proposamena. Aurkeztutako zuzenketak (14. or.).

—Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamena. Aurkeztutako zuzenketak (26. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe berrian Jarraipen Bereziko Espetxeratuaren Fitxategia (JBEF) ereduko modulu bat sortzea eragoz dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia (31. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko goi mailako informatika-teknikari lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa (32. or.).

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa. Izangaien zerrenda (36. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektua**

### *AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2000ko apirilaren 17ko 34 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **OSOKO ZUZENKETAK**

#### **1. ZUZENKETA**

##### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 126.5 artikulua xedatutakoaren arabera, ondokoa aurkeztu du:

“2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektua” Gobernuari itzultzeko osoko zuzenketa.

Toki Araubidearen Foru Batzordean izan ziren toki entitateetako ordezkarien txostenak adierazten du 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektuak ez dituela biltzen toki ordezkarien asmoak eta proposamenak, eta ikuspuntu horretatik, txostena, nahitaez, aurkakoa izan behar dela.

Aurreko legegintzaldian bezala, Gobernuak Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123. artikuluan ezarritako epeak bete gabe bidali duen 2001-2003 urteetarako planaren Foru Lege

proiektuaz balorazio negatiboa egiten du IUN/NEBek. Gure ustez lege proiektu hau aurrekoen jarraipen hutsa da, areago, kalko bat dela esan dezakegu. Laugarren hiru urtekoan Gobernua ez da gai izan hiru urtetarako planaren eredu berraztertu eta irekitzeko, bestelako azpiegiturak har ditzan, osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuen azpiegiturak, gaur egun, garrantzi handikoak baitira toki entitateentzat.

IUN/NEBen iritziz, nabaria da toki inbertsioak planifikatzeko eta kapital transferentzien fondoa banatzeko eredu berri baten premia, errealitatearekin eta toki entitateen gaur egungo premiekin bat etorriko den eredu bat, alegia. Behar-beharrezkotzat jotzen dugu egindako inbertsioen bolumenak eta toki entitateetan izan duen eragina gaitzat hartuko dituen azterlan bat egitea. Batez ere ezinbestekoa da Fondoaren erregulazio orokorrako esparru bat edukitzea, Toki Ogasunek Foru Komunitateko tributuetan izan beharreko partaideztaren araubidea zehazturik gera dadin.

Nabarmena da, gure ustez, aurrekontuen diru-urritasuna, zeina kontusailak doitu eta gutxitzeko joera, azken hiru urtekoetan, bereziki azken bietan, antzeman dena, sendotzen baitu, KPIri dagokionez ez ezik, Nafarroako Gobernuaren inbertsioen bolumenari eta tributuen bilketaren bolumenari dagokionez ere. Zuzkidurak ez dira aski toki azpiegituretan dauden inbertsio beharrei erantzuteko, beste arlo batzuekin lotutako azpiegiturak direnean: gizarte ongizatea, kultura, ingurugiroa), horien finantzazio partekatua sistemaren hiru urtetarako planean ezarritako prozeduretatik kanpo gelditzen baita.

Bestalde, hiru urtetarako planaren erregulazioari dagokionez, agerikoa da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekiko desadostasuna, toki entitateen bideragarritasun ekonomikoa –obrak planean behin-behineko sartzeari begira– zehaz-

teko eskumena Nafarroako Gobernuaren gain egotearen inguruan. Alderdi honek eragin zuzena du toki autonomian; antolamendu juridikoak berau bermatu eta ahalbidetzeko bideak ezartzen ditu, Nafarroako Gobernuari ezertarako ukatu gabe toki entitateen jarduketan legezatasuna kontrolatzeko ahalmena.

Horregatik guztiagatik, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezer Batua Parlamentuko Taldeak hauxe proposatzen du:

Nafarroako Gobernuari "2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektua" Gobernuari itzultzea.

## 2. ZUZENKETA

### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 126.5 artikulua xedatutakoaren arabera, ondo-koa aurkeztu du:

"2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektua" Gobernuari itzultzeko osoko zuzenketa.

Espainiako Konstituzioaren 140. artikulua ezartzen du "udalen autonomia garantizatuko da. Udalek legezko nortasun osoa dute. Udalen gobernu eta administrazioa, alkate eta kontzejalez hornituriko udalbatzarrei dagozkie. Kontzejalak auzakideek aukeratuak izango dira, legeak esaten duen erara eta bozketa orokor, berdin aske, zuzen eta isil baten bidez. Alkateak kontzejalek edo auzakideek aukeratuak izango dira. Batzarre irekiaren beharrak legeak arautuko ditu".

Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legearen 4. artikulua, 1. idatz-zatian, ezartzen du "Edozein kasutan, udal, probintzia eta irlei dagokie programazio edo plangintzarako ahalmena".

Lege horretan berean, 58. artikuluko 2. idatz-zatian, xedatzen da "Estatuko administrazioak eta autonomia erkidegoetakoek parte hartu ahal izanen dute haietako bakoitzean ezartzen den lankidetzaren organoetan. Nolanahi ere, plangintzarako tresnak itxuratu eta onesteko eskurantzak dituzten administrazioek partaidetza eman beharko diete gainerako administrazioei ukitutako interes publikoak armonizatu ahal izateko. Udalek parte hartuko dute beraiek ukitzen dituzten herrilaren plan orokorrak eratzean, betiere sektoreko legeak xedatutakoarekin bat. Era berean, erabilerak zehaztean eta beste administrazioek beren esku-meneko jabari publikoaren gaineko lagapen edo

baimenen arloko ebazpenak ematean, onartuak izateko nahitaezkoa izanen da jabari publiko hori dagoen udalerrien alde aurretiko txostena, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztindako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 82 eta 83. artikuluetan ezarritakoarekin bat".

Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 61. artikuluarri jarraikiz, "Nafarroako Gobernuak, horretarako gaituko duen foru lege baten esparruan, inbertsio planak ezarriko ditu; horien helburu nagusia izanen da nahitaezko udal zerbitzuak bermatzea Foru Komunitate osoan. Plan hori entitate interesatuek, Nafarroako Gobernuaren ekarpenek eta legez bidezkoak diren gainerakoek finantzatu ahal izanen dute".

Artikulu berean, 2. idatz-zatian, honakoa adierazten du: "Planaren jarraibide orokorrak, bai eta programazio eta plangintza lerroak Nafarroako Gobernuak finkatuko ditu, Toki Araubidearen Foru Batzordeari entzun ondoren". 3. idatz-zatian ezartzen da Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek lankidetzaren ekonomikoan aritu ahal izanen direla, tokiko zerbitzuak ematean nola ororen intereseko gaitetan, hitzarmen, partzuergo eta bestelako tresnen bitartez.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 27/1995 Foru Legearen 123. artikuluko 4. idatz-zatiak eskatzen duenez, toki entitateek Nafarroako zergetan parte hartzeko fondoari dagozkion kapital transferentziarako aurreikusitako zenbatekoa banatzeko modua inbertsio plana gaitzeko foru legearen bidez eta onartzen diren konbergentzia planen arabera zehaztuko da.

Estatuko eta Foru Komunitateko legediaren aipamen horien ondotik, NDEk uste du plangintza lanak kontuan hartu behar dituela gai hauek:

1. Toki inbertsioetarako plangintza esparru berri bat ezarri beharra dagoela, eta halaber, plangintzaren epeak lau urtetara luzatu, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen aurreikusitakoaren ildotik.

2. Inbertsio Fondoaren zuzkidura toki entitateek Nafarroako zergetan parte hartzeko fondoaren inguruko eztabaidaren eta zehaztapenaren testuinguruan finkatu behar da, inbertsio fondoaren beste parte baita, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legearen 123.5 artikuluan aurreikusi bezala.

3. Inbertsio Fondoaren zuzkidurak gehikuntza izan beharko du, ez nolana hiko, baizik eta 1989/1991 urteetako mailak iristeko adinakoa, gutxienez. 1993. urtean, hiru urtetarako planak

murrizketa nabarmena izan zuen, aurrekontuetan egin behar izan zen doikuntzaren ondorioz. Hala ere, transferentzien jaitsiera foru inbertsio berekietan (inbertsioak gehi kapital transferentziak, toki entitateenak kenduta) gertatutakoa baino ehuneko 10 handiagoa izan zen. Hiru urtetarako azken planean, Departamentuko teknikariengandik lehentasun handienaren kalifikazioa (beharrezkoak eta presakoak) jaso zuten eskaeren % 66ri, soilik, erantzun ahal izan zaio planean aurreikusitako ekarpenak erabiliz. Horregatik, esan daiteke planaren zuzkidurak ez direla izan eta ez direla aski toki eskumeneko oinarriko azpiegituretan dauden inbertsio premiak asetzeko; bestetik, zuzkiduren hazkundera Foru Komunitatearen inbertsio berekiek izan dutena baino askoz txikiagoa izan da, eta bestelako inbertsioetarako transferentziak handitu izanak toki inbertsioen finantzazio partekaturako egungo sistema aldatzera behartzen gaituela, betiere horretarako beta harturik.

4. Lehendabiziko Inbertsio Plana (1989/1991) sortu zenetik, ez da inolako aurrerapenik izan hobetzeko edo eredu osotuagoa lortzeko, eta aurreko planak onetsi zituzten foru legeak aurreko eredia berregin eta kopiatzera mugatu izan dira, ezaugarri orokorretan nola zehaztetan. Formula bera hamabi urtez erabili ondoren, beharrezkoa da egoera berraztertzea. Zehaztu beharra dago ea egokia den, egungo testuinguruan, toki entitateek hiri hondakin solidoen bilketa eta tratamenduan, goi presioko uraren horniduran eta ibaien arazketan dituzten eskumenen koordinazioa Nafarroako Gobernuaren esku mantentzea, 1989an bezala. Eta egokia baldin bada, ea izan behar dituen garai hartan, plan zuzentzaileetan ezarri ziren eduki eta norainoko berberak.

5. Otsailaren 16an Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak erabaki bat onetsi zuen, eskualde-orekari buruzko plan bat egiteko beharrezko inguruan. Erabakiaren zioen azalpenean adierazten zen aurrerapausuak eman behar direla, gure Komunitatea homogeneousagoa izan dadin herritarren bizi kalitateari eta garapen pertsonalerako aukerei dagokienez. Helburua izan da nafarren artean beren bizitokia dela-eta izan daitezkeen desberdintasunak ahalik eta txikiak izatea. Orobat aipatzen zen beharrezkoa dela Foru Komunitatearen baliabideak antolatzea legegintzaldiaren hasieran, eskualde mailako irizpideekin. Erabaki proposamen horretan esaten zenez, hamar hila-beteko epearen barrenean Nafarroako eskualde-orekari buruzko plan bat egingen dela, banaketa eta errenta oinarri hartuta. Horretarako erabiliko diren datuak ez dira ekonomikoak soilik izanen; beste irizpide batzuk ere erabiliko dira, hala nola demografikoak, azpiegiturei dagozkienak, sozioe-

konomikoak, sozialak, soziosanitarioak, osasunari dagozkionak, ingurugiroari dagozkionak eta abar. Planaren helburua izanen da eskualdeetako garapen eta ongizate politikak berraztertzea, oinarri hartuta, betiere, eskualdeen oreka lortzea eta eskualde behartsuenak garatzea. Plan honek, gainera, ondoko irizpideak ere bildu beharko ditu:

a) Enplegua. Enplegua sustatzea emakumeen aldeko eta adin ertaineko langabetuen aldeko neurrien bidez.

b) Jasangarritasuna eta ingurumena. Ingurumenaren benetako zaindariak eremu pribilegiatu horietan bizi diren pertsonak izan dira. Ingurumena zaintzea eta garapena bateragarri izan daitezkeen lortu behar dugu. Zioen azalpenak eta onetsitako proposamenak argi erakusten dute plangintza modu berria sortu beharra dagoela, aurrekoen beste irizpide batzuekin, orain arte sortutako desorekak zuzentzeko, planifikatzeko modu zaharrekin ezinezkoa izan baita hori lortzea.

6. 1997/1999 urteetarako Azpiegituren Plan Berezia egin izanak agerian utzi zuen, berriz ere, toki azpiegituren arloan plangintzak egiteko dagoen gaitasun urria. Plan bereziak egin behar garbi utzi zuen hiru urtetarako planen mami eta sinesgarritasun falta, eta berrikusi egin behar direla, hain zuzen ere plan berezi horiek, etorkizunera begira egiten ez direnak, zehaztasun tekniko gutxiak eta morrontza politiko errazekoak, ugal ez daitezkeen.

7. Hiru urtetarako planaren foru lege proiektuak ez du inolaz ere aurreko urteetako eredia berrikusteko asmorik agertzen. Aldez aurretik egin beharko liratekeen azterlanak falta direnez, ezinezkoa da une honetan prestatzea, seriotasun eta zorrotzasunez behintzat, kapital transferentzien fondoa planifikatu eta banatzeko eredu berri bat. Nahitaezkoa da azterlan bat, gai hauen inguruan: kapital transferentzien fondoaren zuzkidura eta toki entitateendako arazorik ez dakarten epeetan planifikatu beharra dago. Ohiko transferentzien fondoaren formularako beste azterlan bat egin beharko da, Nafarroako Gobernu Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan egiten ari denaren gisakoa.

8. Ez da egokia une honetan plan honen oinarriko alderdiez mintzatzea, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Unibertsitatearen azterlan horretan zergetako partaidetzarako prestatzen ari diren esparru orokorra ezagutu gabe. Fondoaren erregulazio osatuaren barrenean baizik ez da hiru urtetarako planaren balorazio arrazoitua ematen ahal. Horregatik guztiagatik, toki entitateen egungo finantza-esparruaren azterlan lasai eta osatua

prestatzea eskatzen da, NUPekin batera dagoeneko hasirik dagoen azterlan horretan neurri batean tratatzen ari den gaia izanik.

9. Toki entitateek askotan jarri dute ezbaian toki azpiegituren hiru urtetarako planaren administrazio prozedura, arrazoi hauengatik: nahasia eta iluna da, dokumentazioa aurkezteko zailtasunak, eta hobetu beharreko azpiegituren egoera baloratzeko izan daitekeen hautazkotasuna. Administrazio prozedura errazteko pausurik eman ez izanaren falta somatzen da.

10. Plangintza honek ezinbestean eragiten duen arazo bat da udalek, batzuetan, berandu egiten dituztela obrak egiteko kontratatutako enpresendako ordainketak. Udalen berankortasun hori toki entitateen inbertsioen antolamenduari eta finantzabideei estuki loturik dago, ez baitugu ahaztu behar hiru urtetarako planaren obrak toki ogasunen fondoak finantzatzen dituela, toki garapenean ordaintzen den % 40-60tik beste azpiegiturretan ordaintzen den % 90eraino. Toki entitateen irudirako eta enpresa kontratu-hartzaileendako hain kaltegarriak diren diruzaintzako gorabehera horiek saihestearren, Nafarroako Gobernuak proiektuaren prezioaren zenbatekoa ordain lezake, dagokion obra behin betikoz sartzan denean planean. Obra horrek hasierako aurreikuspenak gaindituz gero, egokitzapenak egiten lirateke toki entitateen diruzaintzan estuasunik ez izateko, ez eta, beraz, tirabirarik ere kontratu hartzailearekin.

11. Plangintza honek ez dio heltzen, halaber, antolatzeko modu berezi honek sortzen dituen koskak. Hiru urtetarako plan guztiak izaten dute beharkizun tekniko-administratiboak betetzen "gal-tzen" den urte bat, lehendabizikoa, gehienetan; horren ondorioz, obren proiektuak eta jarraipena egiten dituzten enpresak eta bulegoak ez dira prestatu egoten, kasu askotan, obra kopuru handi hori hain denbora laburrean bereganatzeko. Kasu batzuetan, obraren prezioa garestitu egiten da, herrilanen eskaera handia dela-eta, eta beste batzuetan, obra zuzendaritzek obren gainean egiten duten jarraipena ez da behar bezalakoa, jarraitu beharreko obren kopuru handia dela-eta. Plangintza epe luzeagorakoa izan balitz arazo horiek ere samurtuko lirateke. Lau urtetarako plangintza batekin, sektoreko enpresek hobeki ezarriko lituzkete plantillen neurriak, zuzendaritza fakultatiboek jarraipen hobea eta zabalagoa egiten lukete obren gainean eta toki entitateek hobeki planifikatuko lukete ordainketa.

12. Azkenik, egiteko dago Nafarroako toki ituna sortzeko aurrerapausuei buruzko mozio baten eztabaida Nafarroako Parlamentuan, bai eta adituen batzorde baten sorrera, toki mailako

plangintzaren inguruan planteaturiko gai horiek aztertzeko. Horrek guztiak komenigarri egiten du aurrera ez egitea iraganeko plangintza modu errepikatuekin.

Esandako guztiagatik, honakoa eskatzen da:

1. "2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektua" itzultzea eta toki azpiegituren plangintzari buruzko foru lege proiektu berri bat aurkeztea, oinarriko printzipio hauekin:

a. 2000-2005 toki azpiegituren lau urtetako plana.

b. Nafarroako Parlamentuak 2000ko otsailaren 16an eskualde-orekari buruzko plan bat egiteko onartu zituen oinarriko alderdiak.

c. Administrazio prozedura erraztea, toki entitateen ekintzaren mesedegarri.

d. Finantzaziorako formula berri bat, NUPekin batera egindako alderatze-azterlan baten ondorioz sortua, eta ohiko transferentzien fondorako prestatzen ari denaren ezaugarri berdinekin.

e. Lau urtetarako azpiegitura planaren zuzkidura gehikuntza handikoa, 1989-1991 urteetako inbertsio mailak berreskuratzeko, bai eta beste finantzaziobide bat, egungo sistemak toki entitateei eragiten dizkien berankortasun-arazoak konponduko dituen.

f. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 271995 Foru Legearen aldaketa, hiru urte baino gehiago hartuko dituen plangintza modu bat, proposamen honetan planteatzen den bezala, garatu ahal izateko behar diren alderdiei eta idatz-zatiei dagokienez.

2. Plangintzarako sistema berria prestatzeak ez du inbertsioak geldiaraztea ekarri behar. 2000. urtean eta 2001. urteko lehen seilahibeteen prestatu beharko da plangintzarako bide berri hori; anartean, 2001. urtea zubi-urtea izan beharko da, hau da, osagarria, hiru urtetarako plan guztietan gertatu ohi den bezalaxe, eta Nafarroako Gobernuak legegintza mailan beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu hala izan dadin.

3. Kontuan harturik planteatutako irtenbideari lege-mamia emateko behar diren arauak 2001. urtean prestatzerik ez dela izan, gure proposamena da 2001. urtean plangintza bat taxutzea 1997-1999 urteetako toki azpiegituren plana alde batera utzi gabe, hiru urtetarako plan horretan bete gabe gelditu baitziren zenbait eskaera, eta zehazki, Toki Administrazioako Departamentuko teknikariek beraiek premiazko eta presakotzat jo zituzten obretarako eskaera guztien % 33. Azken

obra horiei lehentasuna eman beharko zaie 2001. urtean, eta horretarako, beharrezkoa izanen da antolatzea administrazio prozedura erraza eta argia toki entitateentzat, 1997-1999 urteetako azpiegituren plan berezirako sortu zenaren ezau-garriekin.

### 3. ZUZENKETA

#### EUSKAL HERRITARROK

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, osoko zuzenketa aurkeztu dio 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektuari.

Toki entitateen ordezkariak Toki Araubidearen Foru Batzordean plazaratutako eragozpenak agerian gelditzen dira lege proiektua patxadaz irakurrita. Objektiboki ikusirik, Hiru urtetarako planerako proposatu diren dotazioak ez dira aski toki eskumeneko oinarritzko azpiegituretan dauden inbertsio premiak asetzeko.

Era berean, egiaztatu dugu zenbatekoaren gehikuntza Nafarroako Administrazioaren gainerako inbertsioek izan dutena baino askoz txikiagoa dela, eta horrek dakarren desoreka ez dela zuzena; azkenik, egiaztatu dugu toki entitateendako kapital transferentzien ia erdiak hiru urtetarako planaren mekanikakoak ez diren prozeduren bidez zehazten direla, bestelako inbertsioetarako transferentziak handitu direlako (gizarte ongizatea, kultura, kirola, oihan plana, etab.)

Ez dugu aipatu gabe utzi behar plan honen berritasun nagusia, udal eta kontzejuen eskumeneko zerbitzuetarako lankidetzak ekonomikorako tresna den aldetik, toki enteen autonomia murriztea dela, Nafarroako Gobernuak bere gain hartzen duelako toki entitateen bideragarritasun ekonomikoa –obrak planean behin-behineko sartzeari dagokionez– zehazteko eskumena.

Horrenbestez, gure iritzia da toki inbertsioen finantzazio partekaturako sistemak aldaketa sakona behar duela, bistan da, batez ere ikusirik aurrean dugun dinamika hobetzera jotzen ez duen jarraipen hutsekoa dela, toki inbertsioen urte askotako plangintzan eta 1998an kapital transferentzietarako ireki zen fondoaren bidezko finantzazioan oinarritutako eredu baten jarraipena, alegia.

Beraz, NUKFak ere bere egiten dituen argudio horietan oinarriturik, Nafarroako Gobernuak prematzen dugu 2001-2003 urteetarako toki azpiegi-

turen planaren Foru Lege proiektu berri bat bidal dezan, ardatz hauen inguruan:

- Nafarroako toki enteen beharrei egiazki erantzutea.
- Haien finantza askitasuna bermatzea.
- Egiten ditzuten zerbitzuak eta inbertsioak betetzeko adinako diru dotazio zuzena ziurtatzea.

### 4. ZUZENKETA

#### EUSKO ALKARTASUNA/

#### EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldearen ustez, 2001-2003 inbertsioen hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektuaren testua ezagaturik, lege proiektu honek ez die erantzuten behin eta berriz toki entitateak egiten ari diren eskaerei, ez ikuspuntu materialetik ezta ikuspuntu formaletik ere.

Toki entitateek "toki mailako itun" baten beharra adierazi izan dute, horren bidez onartzeko behingoz toki administrazioaren papera beste administrazio batena dela, bere eskumen ahalmenarekin eta autonomiarekin.

Proiektuak inbertsioekin lotutako alderdiez baikik ez da mintzatzen, modu partzial eta eskasean: tokiko inbertsioen zati bat, ez garrantzitsuena, besterik ez du hartzen kontuan eta, gainera, aintzat hartzeko moduak inbertsio mailen hazkundera ez eragiteaz gain, ez dira berreskuratzen aurreko planen zenbatekoak. 2001-2003 urteetarako inbertsio planaren zenbatekoa aurrekoarena da, KPIren arabera eguneratua.

Nafarroako ekonomiaren hazkundera eta Foru Komunitatearen dirusarrerena KPIarena baino handiagoa izan da, eta horrekin bat etorriko da edozein analista independente; beraz, planteamentu horrek ez du onartzen toki administrazioek eskubidea dutela Komunitatearen dirusarreretan parte hartzeko Foru Administrazioaren baldintza berberetan, eta ez haren menpean.

Dotazioa nahikoa ez izateaz gain, tratamenduan ez da aintzat hartzen zerga dirusarreraren hazkundera. Kontuan harturik Hiru Urtetarako Inbertsio Plana Nafarroako Zergetan Parte hartzeko Fondoaren zatia dela, logikoa dirudi ondorioztatzea boltsa hau, ohiko transferentziei nola kapital transferentziei dagokienez, handituko dela Komunitatearen dirusarrerak handitzen diren neurrian.

Badirudi logikoagoa dela pentsatzea egokia litzatekeela, hasteko, toki administrazioek gaurko gizartean bete behar duten papera argi zehaztea, eta ondoren, behin eskumenen mapa finkaturik, herritarren eskaerei erantzuteko premiazkoak diren baliabideak banatzea. Horren aurrean, planak betikoa proposatzen du, eta frogaturik dago neurri horiek ez direla aski toki programazioko obren beharrak asetzeko, Toki Administrazioko Departamentuaren teknikarien iritziz, obra horiek, sailkapenean, 7 edo 10. mailako balorazioa, hau da, oso beharrezkoena, bazuten ere.

Aurreko planean udal eta kontzejuek azaldutako eskaerei erantzuteko finantza premien inguruan NUKFak aurkeztutako datuak oso adierazgarriak dira:

Inbertsio lerroa	Behar den ekarpena
Zoladurak	4.759.228
Sareak	9.940.887
Argiteria	1.335.786
Udal eraikinak	1.716.956
Elektrifikazioak	142.785
Tokiko bideak	989.858
Hilerriak	617.722

Kopuru horiek alderatzen baditugu lege proiektuan aurreikusitakoekin, eta kontuan hartzen badugu lau urte iraganik une hartan 7. mailatik beherako balorazioa jaso zuten beharretan ez zela hobekuntzarik izanen, kontrakoa baizik, ondorio gisa esan dezakegu planean aurreikusi denak ez duela beteko, ezta hurrik eman ere, herritarrek Nafarroako toki entitateei eskatutakoa.

Hitzez hitz errepikatzen dira aurreko planetako finantzazio lerroak, alderdi bat kontuan hartu gabe, alegia, garai batean sostenguko politikak, esate baterako herrietako elektrifikazioa, zenbait populazioguneren iraupenerako faktore nagusiak izan ziren; gaur egun, berriz, teknologia berriak eta, beraz, herritarrek horietaz baliatu ahal izatea funtsezkoak dira aukera berdintasunaren aldeko borrokan, informazio eta komunikazioaren gizarte honetan.

Oraingoan ere ez zaio ematen behar adinako balioa toki entitateek garapen ekonomikorako politikan bete beharreko paper aktiboari, eta toki garapenean kontusailen dotazioak testimonialak dira.

Proiektuan ez da azaltzen fondo komunitarioen gehigarritasunaren printzipioa. Fondo horiek orokorrean gehitzen zaizkie, atzean gelditzen ari diren eskualde zehatz batzuen kasuan.

Ez da kontuan hartzen, azkenik, entitate asko inbertsio planetik kanpo gelditzen direla, hiru urteko aldi horretan inolako inbertsiorik egiteko aukerarik gabe, eta beste kasu batzuetan, entitateak hein batean baizik ez dituela hartzen, entitatearentzat lehentasunezkoa ez den obra bat onartuz eta lehentasunezko beste bat alde batera utziz. Udal eta kontzejuen autonomiaz egiten den irakurketa oso bitxia da, zinez.

Horregatik guztiagatik, 2001-2003 inbertsioen hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea proposatzen diogu Foru Biltzarraren Osoko Bilkurari.

## **ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

### **1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

#### **1. ZUZENKETA**

#### **EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

#### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua 2. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa. Honakoa esan behar du:

“2. Toki azpiegituren hiru urtetarako planak honakoetan aurreikusten diren inbertsioak ditu osagai: a) Plan Zuzendariak, b) Toki Programazioa, c) Toki Garapena eta d) helburu zehatzik gabeko inbertsioak.

Zioak: Helburu zehatzik gabeko inbertsioetarako finantzazio lerro bat irekitzea, toki entitateek beraiek zehaz dezaten inbertsioaren helburua.

### **2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

#### **2. ZUZENKETA**

#### **EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

#### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua, plan zuzendariak. Lehendabiziko puntuari gehiketa egiteko zuzenketa.

“d) Ibai-bazterrek lehengoratzea.”

Zioak: Iruñerrian Arga ibaiaren bazterrak lehengoratzeko gauzatu den ekimena positiboa iruditzen zaigu. Gure ustez, garaia da Foru Komunitate osoan ibai-bazterrak lehengoratzeko plan bati ekiteko.

### 3. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/  
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-  
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluar 6. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

“6.Ibai-bazterrak lehengoratzeko plan zuzendariak Nafarroako ibaien bazterrak lehengoratzeko behar diren inbertsioak biltzen ditu.”

Zioak: Aurreko zuzenketarenak.

### 3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

### 4. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/  
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-  
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 2. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

2. Honakoak dira toki programazioko inbertsioak: goi presioko ur hornidurari buruzko baina Plan Zuzendarian sartu gabekoak, ura banatzeko eta saneamendurako hiri sareak, elektrifikazioak, herri argiteria, zoladurak, udal eraikinak, kanposantuak, toki bideak, landa bideak eta kablearen ezarpena.

Zioak: Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak bazterturiko eskualdeen garapenerako tresna ere bilakatu daitezke. Hori lortzeko, beharrezkoa da plan bati ekitea, zalantza egin gabe eta borondate politikoaz, kablea finantzazio partekatua bidez ezarri ahal izateko, aipatutako bultzada gabe tresna hori urte asko iragan arte eskuratuko ez luketen eskualdeetan.

Landa bideen lerroaren xedea da lurzati berrantolamenduaren barrenean berritu ezin diren baina herrietako jarduera ekonomikoaren garapen normalerako beharrezkoak diren bideak finantzatzea.

### 5. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/  
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-  
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluar 10. idatz-zatia gehiketzeko zuzenketa

“10. Kable-sareen kontzeptuan sartzen dira informazioaren eta komunikazioaren autopista hauek behar bezalako zerbitzurik, edo batere, ez duten populazioguneetara edo eskualdeetara banatzea ahalbidetzeko behar diren azpiegiturak.”

Zioak: Aurreko zuzenketarenak.

### 4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

### 6. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/  
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-  
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluar gehiketa egiteko zuzenketa. Honakoa esan behar du:

Toki garapenean sartzen dira toki entitateek, beren oldez, turismo eta produkzio sektoreak bultzatzeko behar diren ekipamendu eta azpiegiturretan egin behar dituzten inbertsioak. Finantzabide honetan sartu ahal diren ekipamenduak eta azpiegiturak zentzu zabalean hartuko dira.”

Era berean, idatz-zati honetako ekipamenduen artean egonebn dira lurrazpiko edo azaleko apar-kalekuak egiteko ekimen publikoak edo administrazio lagapenekoak, betiere hirigune zaharrak edo historikoak berreskuratzeko eta zaharberritzeko politikei atxikirik badaude edo bertan bizi direnendako badira, alde hori oinezkoendako eremu bihurtzeko xedearekin; eta halaber, eskualdeetan telezentroak sortzeko era deszentralizatuan.

Zioak: Nafarroako edozein eskualdetako herri-tarregana hurbiltzea teknologia berriak.

Gure hiriguneetan dagoen trafiko arazoari irtenbideak bilatzea, eta bidenabar “saltoki handi sakabanatuak” dei ditzakegunak sustatzea.



## 6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

### 7. ZUZENKETA

#### EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikularen 1. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa. Honakoa esan behar du:

1. Toki azpiegituren hiru urtetarako planarentzako aportazioak, Nafarroako aurrekontu orokorretan kapital transferentziatzat jotzen direnak, urte bat baino gehiago hartzen dituztenak izanen dira, honela:

	2001	2002	2003	Guztira
A) Plan Zuzendariak				
Azterlanak	20	20	20	60
Goi presioko ur hornidura	1.166	1.166	1.166	3.498
Ibaiak araztu eta saneatzea	700	700	700	2.100
Hiri hondakinak:				
- Tratamendua	125	125	460,8	710,8
- Bilketa	185	185	139,5	509,5
- Iruñerriko Mk. arekiko hitzarmena		224,1		224,1
Berariazko hondakinak			300,6	300,6
Ibai-bazterrak	200	250	300	750
Milioiak, guztira, P.Z.etan.	2.396	2.670,1	3.086,9	8.153
B) Toki programazioko inbertsioak				
Goi presioko ur hornidura				
Plan Zuzendarietan sartu gabekoa	25	25	25	75
Ur hornidurako eta saneamenduko sare lokalak.				
	1.500	1.500	1.500	4.500
Elektrifikazioak	50	50	50	150
Herri argiteria	300	300	300	900
Zoladurak	1.100	1.100	1.100	3.300
Udal Eraikinak	350	350	350	1.050
Kanposantua	150	150	150	450
Toki bideak	200	200	200	600
Herri bideak	100	100	100	300
Kableari buruzko programa	300	350	350	1.000
Milioiak, guztira, toki programazioan	4.075	4.125	4.125	12.325
C) Toki garapena				
Aparkalekuen toki garapena	300	300	300	900
Telezentroen toki garapena	100	100	100	300
Toki garapena	300	300	300	900
Toki garapena, guztira	700	700	700	

D) Helburu jakinik ez duten inbertsioak	1.200	1.300	1.400	3.900
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.371</b>	<b>8.795,1</b>	<b>9.311,9</b>	<b>26.478</b>

Zioak: 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planerako aurreikustea toki entitateei beren oinarriko beharrei aurre egiteko behar dituzten diru zenbatekoak.

### 8. ZUZENKETA

#### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta b) letrak ordeztzeko zuzenketa

6. artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta b) letren ordezkondoko testua jartzea proposatzen dugu:

	2001	2002	2003	Guztira milioitan
A) Plan zuzendariak				
Azterlanak	10	10	10	30
Goi presioko ur hornidura	1.166	1.166	1.166	3.498
Ibaiak araztu eta saneatzea	400	400	400	1.200
Hiri hondakinak:				
- Tratamendua	125	125	460,8	710,8
- Bilketa	185	185	139,5	509,5
- Iruñerriko Mk. arekiko hitzarmena	-	224,1	-	224,1
Berariazko hondakinak	-	-	300,6	300,6
Milioiak, guztira, P.Z.etan.	1.886	2.110,1	2.476,9	6.473
B) Toki programazioko inbertsioak				
Goi presioko ur hornidura				
Plan Zuzendarietan sartu gabekoa	15	15	15	45
Ur hornidurako eta saneamenduko sare lokalak.				
	1.360	1.360	1.360	4.080
Elektrifikazioak	55	55	55	165
Herri argiteria	255	255	255	765
Zoladurak	905	905	905	2.715
Udal Eraikinak	260	260	260	780
Kanposantua	130	130	130	390
Toki bideak	160	160	160	480
Milioiak, guztira Toki programazioa	3.140	3.140	3.140	9.420

Zioak: Zuzenketaren helburua da proiektuan aurreikusiriko ekarpen kontusailak berrantolatzea, Ibaien Saneamendurako Plan Zuzendariari atxikitako kopuruak jeitsi eta toki programazioko lanena handitzeko aurreko planetan bete gabe gelditu ziren eskaeren proportzioan.

Saneamenduko Plan Zuzendariarendako ekarpenak 900 milioi pezeta gutxiago izateak ez dakar

berarekin murrizketa haren exekuzioan, zuzenke finantzarioa baizik, beharrezkoa baita Plana egokitzeo egiaz dituen baliabide ekonomikoetara. Saneamenduko Plan Zuzendariaren aurreikuspenak gainditu egin dira, hainbat arrazoiengatik: saneamenduko kanonaren urteko dirubilketa Planean aurreikusitakoa baino handiagoa izan da, azpiegiturak kudeatzeko kostuak, berriz, txikiagoak, eta finantzazioa lortu delako fondo komunitarioetatik. Horren ondorioz, Planaren urteko kudeaketan defizitak edo saldo baliogabeak gertatu beharrean, urteko emaitzetan superabitak gertatzen dira etengabe, eta horiek, inbertsio handiagan baino finantza saldo positiboetan islatzen dira, beste inbertsio-lerro batzuen kaltetan, hala nola, esate baterakotoki programazioko lanak, hauetarako dotazioak ez baitira nahikoak ezta premiazko eta presakotzat jotzen diren eskaerei ere erantzuteko.

Horregatik guztiagatik, gure proposamena da Plan Zuzendariari proiektuaren arabera eman beharreko diru kopurua baino 900 milioi gutxiago ematea, eta neurri horri esker libre geldituko diren baliabideak toki programazioko lanetarako dotazioak handitzeko erabiltzea. Lerro desberdinetarako diru-atxikipena eginen da premiazko eta presakoaren kalifikazioa jaso zuten lanak sartzeko eskaeren proportzioan, lan horiei 97-99 hiru urteetarako planean eta 2.000 zubi-urtean erantzuterik izan ez den kasuan.

9. artikuluari egindako zuzenketa, Ibaien Saneamenduko Plan Zuzendariaren inbertsioendako finantza ekarpena % 80tik % 50era murrizten duenak, osatzen du zuzenketa hau. Horrela, haren finantza araubidea kudeaketaren errealitate ekonomiarik egokitzen zaio.

## 9. ZUZENKETA

### **EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

3. Europako Batasunak emendiozko finantzaketa ematen duen kasuetan, plan osagarri bat ere eratuko da, finkatzeko zein azpiegitura inbertsio, Foru Lege honek aipatzen dituenetatik, gai diren Batasuneko fondoak eskatzeko.

Plan osagarri horretan sartzen diren inbertsioek bete beharko dituzte Europako araudiak honakoan gainean jartzen dituen baldintzak: finantzaketa jasotzeko gai diren eremuak, dokumentazioa tramitatzeo epeak, aportazioaren portzentajea,

pagamenduen egutegia eta zein ere alderdik kontra eginen baitio hiru urtetarako planaren araudiari.

Toki programazio eta garapeneko obretarako, Europako Batasunaren fondo aportazioa tokatzen den finantzaketa ehunekoraino osatzeko, fondo berezi bat eratuko da, eta Europako ematen duen pezetak bakoitzeko Nafarroako Gobernuak ere bat, gutxienez, emanen du.

Une honetan ez dakigunez zein den aportazio horien zenbatekoa, kreditu gehikuntza gisa tramitatuko da, behar denean.

Toki programazioko obrak, Foru Lege honetako 8. artikuluan ezartzen denaren arabera izandako kalifikazioei jarraikiz lehenetsiko dira.”

Zioak: Europako fondoei egiaz atxikitzea izaera gehigarriaren egiazkoa atxikitzea, izaera hori baita fondoan izanaren inspirazio iturri.

## 10. ZUZENKETA

### **EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikularen 5. idatz-zatia ordeztzeko zuzenketa. Honakoa esan behar du:

“Nafarroako Gobernuak, toki entitateek planean hautatu eta lehenetsi diren obrak gauzatzeko ezartzen duten lehentasunaren arabera, zilegi izanen du gehienez ehuneko hamar zabaldu ala gutxitzea hiru urtekoaren lehen urtean egiten diren lanetarako ezarritako kopuruak, betiere hiru urtetarako plan horretan sartutako lanak badira, eta lehendabiziko urteko ehuneko Nafarroako urteko KPla gehi puntu bat. Hartara, moldatu egin beharko ditu ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan jasota dauden kopuruak, Nafarroako aurrekontu orokorretan hiru urtetarako planari egotzitako kopurua, guztira, berbera izateko moduan.”

Zioak: Zuzenketaaren asmoa da hiru urtetarako planaren bigarren urtetik aurrera egiten diren lanak lehendabiziko urtean egiten dituzten herrien baldintza berdinetan egotea.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
ZUZENKETAK

11. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9.1 a) artikuluari aurkeztutako zuzenketa

9.1 a) artikuluan ibaien arazketa eta saneamendurako aurreikusten den % 80ko aportazio-ehunekoaren ordean % 50ekoa proposatzen da.

Zioak: 6.1 artikuluari egindako zuzenketaren osagarria den zuzenketa honen asmoa da Planean aurreikusiriko aportazio-araubidea Saneamenduko Plan Zuzendariaren egiazko beharretara egokitzea da. Saneamenduko kanonaren bidez pentsatu baino baliabide gehiago eskuratu izana eta zenbait inbertsioetarako Europako finantzazio osagarria direla-eta, plan horrek diru-soberakinak ditu, toki programazioko presako eta premiazko inbertsioak sartzeko erabiltzen ez direnak. Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik ibaien saneamendurako bideratzen den diru kopurua gutxitzeak Planaren diru soberakinak ere gutxitzea ekarriko du, aurreikusirik dauden inbertsioak astirotu eta murriztu gabe.

12. ZUZENKETA

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

9. artikulua 5. idatz-zatiaren 2. lerrokadan, honakoa dioen tokian: "artikulu honetako 2. puntukoa hartuko da aintzat", esan behar du "artikulu honetako 3 eta 4. idatz-zatiak hartuko dira aintzat".

Zioak: Akatsa dago transkripzioan.

13. ZUZENKETA

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

9. artikulua 7. idatz-zatiaren lehendabiziko lerrokadan, honakoa dioen tokian: "2. idatz-zatiko formularen arabera", honakoa esan behar du, "3. idatz-zatiko formularen arabera".

Zioak: Akatsa dago transkripzioan.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
ZUZENKETA

14. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/  
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-  
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honakoa esan behar du:

"3. Plan zuzendariek eginkizunak egotzi dizkieten toki entitateei aurreikuspenak bururatu ezina sortzen bazaie edo berek beren oldez ez badituzte betetzen, Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du eginkizun horiek subrogazioz bere gain hartzea. Subrogaziozko egintza horretarako aurrez Toki Araubideko Foru Batzordearen txostena beharko da."

Zioak: Erabakian toki entitateek parte hartzen dutela bermatzea.

XEDAPEN GEHIGARRIEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

15. ZUZENKETA

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa.

Laugarren xedapen gehigarrian, 1. idatz-zatian, honako esaldi hau kentzea proposatzen da:

"ezin bada BEZaren peko tasa edo prezio publikoen bidez zerbitzuen kostua berreskuratu".

Zioak: Tributuen arloko legediari lotzea.

16. ZUZENKETA

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa.

Laugarren xedapen gehigarrian, 2. idatz-zatian, honako esaldi hau kentzea proposatzen da:

"BEZa-ren peko prezio edo tasak dituzten zerbitzuei dagozkienak".

Zioak: Zerga arloko araudiari lotzea.

**17. ZUZENKETA****UNION DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa.

Laugarren xedapen gehigarrian, 3. idatzatian, honako esaldi hau kentzea proposatzen da:

“likidazioa hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoaren deklarazioan eginez”.

Zioak: Zerga arloko araudiari lotzea.

**18. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA/  
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-  
PARTIDO NACIONALISTA VASCO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Bosgarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Erredakzio honekin:

“Bosgarren xedapen gehigarria.

“Turismo edo Garapen integraleko Partzuergoek, toki entitateek haietan duten partaidetza publikoa % 50ekoa, gutxienez, baldin bada, esaerak aurkeztu ahal izanzen dituzte Toki Garapenerako deialdian.”

Zioak: Toki garapeneko finantzazio lerroa hala-koxea izatea, egiaz, eta eskualde mailako neurriak ematea, Nafarroako eskualdeetan gaur egun planteaturiko garapen estrategiekiko egokiagoa baita.

**19. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri berri bat gehitzea

Bosgarrena. Nortasun juridiko berekia duen entitate baten edo merkataritzako sozietate baten bidezko zuzeneko kudeaketaren bidea hartuta, hiru urtetarako planeko inbertsioen exekuzioa entitate edo sozietate horri esleitu dioten toki entitateen kasuan, entitate edo sozietate horren organoei dagokie proiektuen eta pleguen onespena, eta halaber, planean obrak behin-behineko eta behin betikoz sartzeko eta Planaren exekuziorako beharrezkoak diren betekizunen tramitazioa.

Era berean, Foru Lege honetan aurreikusiriko aportazioak zuzenean egin ahal izanzen zaizkie

entitate edo sozietate horiei, toki entitateak hala eskatzen badu.

Zuzeneko kudeaketa merkataritzako sozietatearen bidezkoa denean, EEK koefizientearen kalkulurako, kontuan hartuko da toki entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioa, haren osotasunean, kudeaketa sozietatea barne, eta horretarako, 9.4 artikulua aipatzen duen aurrekontuen likidazioari sozietate horrek egindako eragiketak gehituko zaizkio.

Zioak: 2001-2003 urteetarako Planaren Legeari aurreko edukia gehitzeari komenigarri iritzi zaio, Toki entitatek zerbitzuak emateko sortutako ente personalizatuen jarduna errazteko xedearekin, prozeduren tramitazioan bikoizketak eta ente hauen berariazko araubide juridikoak eragin ditzakeen distortsioak saihestuz.

**20. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri berri bat gehitzea

Seigarrena. Inflazioak eragindako desbideraketak arintzeko aportazioa %1 handituko da espediente tramitatzen hasten denetik obraren exkuzioa arte.

Zioak: Gehikuntza hau beharrezkoa da udalek inflazioa dela-eta duten arazoa, aurrekontua desbideratu egiten delako eskatutako obraren espedienteari hasiera ematen zaionetik obra amaitu arte.

**21. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri berri bat gehitzea

Zazpigarrena. Fondoari 3.000 milioi gehitzea, egungo hiru urtetarako planean bete ez diren DII 10 edo 7 eskaera guztiei erantzuteko.

Zioak: Amaitzera doan Planean egin gabe gelditu diren premiazko eskaerak egin ahal izateko, 2001-2003 planarekin ere.

**ZIOEN AZALPENARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**22. ZUZENKETA**

**EUSKO ALKARTASUNA/  
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-  
PARTIDO NACIONALISTA VASCO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko laugarren lerrokada aldatze-ko zuzenketa. Honakoa esan behar du: "2001-

2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planak, Nafarroako Foru Komunitateak lehendik probatutako esperientziak oinarri harturik, honako osagaiak ditu: plan zuzendariak, toki programazioko lanak, toki garapenekoak eta helburu zehatzik gabeko inbertsioak."

Zioak: Inbertsioen exekuzioa ahalbidetzea Nafarroako toki entitate guztietan, eta herriak berak erabakitzea lehentasuna.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Lege proposamena**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### 1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### **1. ZUZENKETA**

##### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa.

Lege proposameneko 1. artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Konstituzioko 14. artikulua agerpen hori ez dela beharrezkoa uste dugu.

### 2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

#### **2. ZUZENKETA**

##### **EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lege Proposameneko 2. artikulua ordeztuko zuzenketa. Horrela idatzita geratuko litzateke:

2. artikulua. Bikote egonkorra kontzeptua.

“1. Hurrengo artikuluetan, bikote egonkortzat hartuko da bi pertsonaren arteko elkartze libre, publiko eta nabarmena, ezkonkideenaren antzeko afektibitate-harremanaren pareko harreman batean, sexu-joera kontuan izan gabe, baldin eta adinez nagusi badira edo adingabeko emantzipatu, eta zuzeneko lerroan edo alboko lerroan, bigarren mailaraino, odol- edo adopzio-ahaidetasunik ez badute. Elkartze hori osatzen duten kideek ezin izanen dute beste pertsona batekin ezkontza-loturarik izan edo bikote egonkorrik osatu.

2. Elkartzea egonkortzat joko da bikoteko kideak etenik gabe gutxienez ere urtebetez elkarrekin ezkondata bailiran bizi izan badira; hala ere, bien arteko seme-alabarik badute, nahikoa izanen da elkarrekin bizitzea. Betiere, elkartzea egonkortzat jotzeko nahikoa izanen da bikotea eratzeko borondatea agiri publiko bidez adieraztea.

3. Foru lege honetako xedapenak bikote egonkorrei aplikatuko zaizkie bikote egonkorreko kideetako batek gutxienez Nafarroako auzotartasun zibila baldin badu.”

Zioak: proposaturiko testua hobetzea.

#### **3. ZUZENKETA**

##### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

Lege Proposameneko 2. artikulua aldatzea proposatzen da. Honela idatzita geratuko litzateke:

“1.- Foru Lege hau aplikatuko da adinez nagusi diren bi pertsonak, indarra duen elkarketa zibileko beste kontraturik gabe eta/edo bietatik inork ezkontza-loturarik izan gabe, elkarrekin bizitzea eta elkarri laguntza ematea beren borondatez erabakitzen dutenean.

Ezin izanen dira elkarketa zibileko kontratu bateko alderdi izan odolez edo adopzioz zuzeneko lerroan ahaide direnak, ez eta alboko lerroan hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna dutenak ere.

Elkarketa zibileko kontratuak bere ondorioak sinatu denetik gutxienez ere hiru urte igaro ondoren sortuko dituela ulertuko da.”

Zioak: Teknikoki egokiagoa eta segurtasun juridiko handiagoa.

#### 4. ZUZENKETA

##### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

###### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2.1 artikuluar gehiketa egiteko zuzenketa.

Honako testua izanen duen lerrokada berri bat gehitzea:

“Baldin eta bikotekide batek edo biek ezkontza-lotura bat badute, horietako azkenak ezkontza-desegitea edo, kasua bada, deuseztasuna lortzen duen unera arte elkarrekin bizitzen igarotako denbora kontuan hartuko da adierazitako urtebeteko epea zenbatzean”.

Zioak: Idatz-zati berri horrek legea gehiago zehazten du.

##### **3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

#### 5. ZUZENKETA

##### **EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua ordezteko zuzenketa. Horrela idatzita geratuko litzateke:

“3. artikulua. Bikote egonkorra desegitea.

1. Hurrengoren bat gertatuz gero joko da desegintzat bikote egonkorra:

a) Bi kideetako bat hiltzen bada edo hiltzat deklaritzen badute.

b) Bi kideetako bat ezkontzen bada.

c) Bi kideek hala erabaki eta eskritura publiko bidez edo agiri pribatu bidez adierazten badute.

d) Bi kideetako batek bere kabuz hala erabaki eta besteari modu fede-emailean jakinarazten badio.

e) Urtebete baino gehiago ematen badute elkarrekin bizi gabe.

f) Bi kideek eskritura publiko bidez zerbait hitzartu eta hori gertatzen bada.

2. Bikoteko bi kideak behartuta daude noizbait dokumentu publiko bidez adierazia izan lezaketena indarrrik gabe uztera –nork bere aldetik, hala izan behar badu–.

3. Bikote egonkorra osatzen duten kideek ezin izanen dute beste norbaitekin beste bikote egonkor bat eratu, non eta lehenengo bikotea ez den desegin lehen idatz-zatian ezarrita dagoen zerbait gertatzearen ondorioz.

4. Bikote egonkorraren iraungitzeak bi kideetako edonork bestearen alde emandako botereak berreskuratzea ekarriko du.”

Zioak: Bikotearen desegitea erakar dezaketen balizko kausa guztiak arautzea.

#### 6. ZUZENKETA

##### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

###### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.c artikuluar kenketa egiteko zuzenketa

“eskritura publiko bidez edo agiri pribatu bidez adierazten badute” espresioa ken dadila proposatzen da.

Zioak: proposamenaren testua ez da beharrezkotzat jotzen.

#### 7. ZUZENKETA

##### **EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluar gehiketa egiteko zuzenketa

Aipatu artikuluar honako lerrokada hauek gehitzea proposatzen da:

“3.- Bikotekideetako edozeinek bere kabuz amaitu ahalko du bikotea, eta beste kideari modu fede-emailean jakinarazi beharko dio.

Bikotea aurreko zenbakiko b), c), d) eta e) arrazoiengatik hausten bada, bikotekideak behartuta daude noizbait dokumentu publiko bidez adierazia izan lezaketena indarrrik gabe uztera –nork bere aldetik, hala izan behar badu–.

4.- Bikote-hausteak bi kideetako edonork bestearen alde emandako botereak berreskuratzea ekarriko du.”

Zioak: Bikote egonkorra haustearekin zerikusia daukaten ondorioen hobekuntza teknikoa.

## 8. ZUZENKETA

### **EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lege proposameneko I. kapituluari artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona bere edukia:

... artikulua. Egiaztapena.

“Bikotea egonkorra dela eta elkarrekin bizitzen urtebete igaro dutela honela egiaztatzen ahalko da:

a) Notario aurrean egitatezko bikoteko kideek sinaturiko eskritura publiko bidez; horren bitartez, bikote egonkorra osatu nahi dutela eta Lege honetan ezarritakoa bete nahi dutela adieraziko dute.

b) Zuzenbidean onarturiko beste edozein frogabideren bitartez; bereziki, nabaritasun-aktaren bitartez edo elkarbizitza egiaztatzen duen dokumentu judizial baten bitartez.”

Zioak: Bikote egonkorren eta beharrezkoa den elkarbizitza-eparen igarotzearen egiaztapena ziurtatu eta erraztea.

### 4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

## 9. ZUZENKETA

### **EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“4. artikulua. Elkarbizitzaren arautzea.

1. Bikote egonkorra osatzen duten kideek dokumentu publiko edo pribatu arautu ahalko dituzte, balio osoz, elkarbizitzaren ondoriozko harreman pertsonalak eta ondarezkoak, bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak adieraziz. Orobat, bikotea osatzen duten kideek arautu egin ahal izanen dituzte egoki deritzeten ordain ekonomikoak bikotea desegiten den kasurako, Lege

honek ezarritako gutxieneko eskubideak betiere errespetatuz; eskubide horiei ezin zaie uko egin exijitu ahal direneko unea iritsi bitartean.

2. Ezin izanen da hitzartu bikote egonkor bat aldi baterako eratzea, ez eta hori inolako baldintzaren menpean jarri ere.

3. Hitzarmenik ezean, bikote egonkorra osatzen duten kideek ahal duten neurrian lagunduko dute etxea mantentzen eta gastu komunei aurre egiten, bai dirua emanez bai lan pertsonala eginez. Gastu komunei aurre egiteko ekarpenak joko dira etxean eginitako lana, beste kidearen lanbiderako edo enpresarako laguntza pertsonal edo profesionala ematea –horren truke inolako ordainik edo behar adinako ordainik jaso gabe– eta norberaren jardueratik edo ondasunetatik eratorritako baliabideak, norberaren dirusarreraren proportzioan, eta, horiek nahiko ez balira, norberaren ondasunen proportzioan.

4. Elkarrekin bizitzeari uztean, bikoteko kideetako edozeinek besteari aldikako mantenua eskatu ahalko dio, bizibidea izan ahal izateko; hurrengo kasuetan eskatu ahalko da:

a) Elkarrekin bizitzearen ondorioz, eskatzaileak diru-sarrerak lortzeko zeukan gaitasuna gutxitu egin bada.

b) Elkarrekin izandako seme-alabak –bere ardurapekoak– zaindu behar diren ondorioz lan-jarduerarik ezin badu burutu edo horretarako oztopo larriak baditu.

5. Mantenua jasotzeko eskubidea automatikoki geldituko da bertan behera seme-alabak zaindu beharra edozein kausaren ondorioz bukatzen denean, seme-alabak emantzipatzen direnean edo euren kabuz bizitzeko ahalmen ekonomikoa daukatenean.”

Zioak: Elkarrekin bizitzearen ondorioz sortzen diren harreman pertsonal nahiz ondarezkoen arauketa xehekatua egitea.

## 10. ZUZENKETA

### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko 4. artikulua aldatzea proposatzen da. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Elkarketa zibileko kontratu bateko kideek, horren eskritura publikoan edo ondorengo beste batzuetan, elkartzeko horren araubide ekonomikoa



ezarri ahalko dute, Nafarroako Foru Berrian aurreikusitakoari jarraituz, eta, bestela, Kode Zibilarri jarraituz; gainera, kasua bada, aipaturiko notario-dokumentuan jaraunspen-ondorioak ezarri ahalko dituzte.

Halaber, elkarrekin adosturiko edo bikoteko kideetako batek bere kabuz erabakitako kontratua amaiarazpenaren ondorioz hitzarturiko ordain ekonomikoak arautu ahalko dituzte.

Zioak: Idazkera osatu gabea hobetzen du eta soberan dauden aurreikuspenak ezabatzen ditu.

## 11. ZUZENKETA

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

4. puntu berria gehitu, honako testua izanen duena:

“Hitzarmenik ezean, bi kideek bizirik daudela uzten badiote elkarrekin bizitzeari, inolako ordainketarik edo behar adinakorik jaso gabe bikotearentzat edo bikotekidearentzat lan egin duenak eskubidea izanen du diru-ordainsari bat jasotzeko baldin eta, aipaturiko arrazoiaren ondorioz, bidegabeko aberastea ekarri duen desoreka-egoera bat sortu bada bien ondareen artean.”

Zioak: Harreman bat bukatzearen ondorioz gerta daitezkeen desoreka ekonomikoak kontuan hartu behar dira.

## 12. ZUZENKETA

### **EUSKAL HERRITARROK**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu berri bat gehitzea proposatzen dugu:

Bikotearen gastu komunak.

1. Bikotearen gastu komuntzat joko dira bere mantenimendurako eta beraiekin bizi diren seme-alaben (beraienak edo batarenak) mantenimendurako beharrezkotzat jotzen direnak, beraien ohitura eta bizitza mailarekin bat, eta orobat:

a) Mantenurako gastuak, zentzurik zabalenean.

b) Etxebizitza edo bikoteak darabiltzan bestelako ondasunak kontserbatu edo hobetzeko gastuak.

c) Osasunbideak ordaintzen ez dituen medikuntzako eta osasuneko aurreikuspenen laguntzetatik sortutako gastuak.

2. Ez dira gastu arruntzat joko kide bakoitzak bere ondasun propioak kudeatzearen eta babes-tearen ondorioz sortutako gastuak; ezta ere, orobat, bikotekideetako baten interesei erantzuten dietenak.

Zioak: Komunean dituzten gastuak zein diren, eta halakotzat zein hartuko diren eta zein ez ezar-tzea.

## 13. ZUZENKETA

### **EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluari artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

“... artikulua. Etxeko lanen konpentsazio ekonomikoa

Bikote egonkorreko kideetako bat komunean duten etxebizitza zaintzen, bien haurrak edo haietako batenak zaintzen edo bikotekidearentzat lanean aritu bada, ordainsariarik gabe edo nahikoa ez den ordainsariarekin, eskubidea izanen du, biek osatzen duten bikotea amaitzean, konpentsazio ekonomikoa jasotzeko. Horretarako baldintza izanen da, egoera horren ondorioz, beraien ondareetan desoreka sortu izana, beste kidea bidegabeki aberastuz.”

Zioak: Bikotekide batek bestearen mesedetan egin dituen etxeko lanak aitortzea, konpentsazio ekonomikoaren bidez.

## 14. ZUZENKETA

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa

4. artikulua ondoen beste artikulu bat gehitzea. Hona hemen:

“1. Aurreko artikuluko 3 eta 4. puntuan araututako eskubideak bateragarriak dira, baina batera eskatu beharko dira egoki balora daitezen.

2. 1. idatz-zatiak aipatzen duen eskubideen eskaera hori elkarbizitza amaitzen denetik urtebeteko epearen barrenean egin beharko da.

3. 4.3 artikulua manatutako betebeharra, a letraren kasuan, hiru urteko epean amaitzen da, lehenengo pentsioaren ordainketa egunetik aitzina, oro har, elikagaietarako eskubidea amaitzeagatik eta horren onuraduna ezkontzen den momentutik edo ezkonduak bezala bizitzen hasten denetik aitzina. b letraren kasuan aldiz, arrazoa edozein delarik ere seme-alabenganako ardura eteten denean edo horiek adinez nagusi izatera iritsi edo emantzipatzen direnean; salbuespen izanen dira ezgaitasun kasuak.

4. 4.4. artikulua manantzen duen konpentsazioaren ordainketa hiru urteko epean egingen da, gehienez ere, aitortu izan denetik aitzinako legezko korrituekin. Konpentsazioa eskudirutan egingen da, salbu eta bi aldean artean ados jartzen badira edo epaileak, frogatutako arrazoa izanik, horretara behartuta dagoen bizikidearen ondasunekin ordaintzea baimentzen badu.

5. Mantenuagatik aldizka eman beharreko pentsioa murriztu edo desagertuko da konpentsatzen duen desoreka gutxitzen edo desagertzen den heinean.”

Zioak: Argiagoa dela dirudi.

#### **5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

#### **15. ZUZENKETA**

##### **EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

“5. artikulua. Ondare erantzukizuna.

Bikoteko kideek modu solidarioan erantzungo dute, bere ondasun guztiekin, bien etxea eta seme-alabak mantentzeko beharrezko gastu komunak onduz egindako zorren aurrean. Salbuespena izanen da, zorrak egin dituen kideak arduraz eta bikotearen bizi-mailari eta ohiturei jarraituz jokatu ez badu; kasu horretan, berak bakarrik erantzun beharko du.

Zioak: Bi kideek modu solidarioan erantzungo dute zorren aurrean, betiere, horiek egin dituen arduraz jokatu badu.

#### **6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

#### **16. ZUZENKETA**

##### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa.

Lege proposameneko 6. artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Lege osoarekin bat etortzeko.

#### **17. ZUZENKETA**

##### **EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Ondoko testua proposatzen dugu:

“6. artikulua. Famili harrera.

Bikote egonkorra osatzen duten kideek famili harrera egin ahaliko dute elkarrekin eta ondorioz, horretarako araututako araubide juridiko-administratiboari lotuko zaizkio.”

Zioak: Famili harreraren formalizazioa ahalbidetzea bikote egonkorra osatzen duten kideei.

#### **18. ZUZENKETA**

##### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluarik lerokada bat gehitzeko zuzenketa.

6. artikuluko 1. idatz-zatiaren ondoren lerokada hau gehitu:

“Kasu horretan, adopzioarako lehentasuna izanen dute bikote heterosexualek, pertsona bakarren eta bikote homosexualekiko.”

Zioak: Adoptatua izan denaren eskubideek lehentasuna izan behar dute, adopzioa egingen duen bikotearekiko; hortaz, lege honek hurrek gurasoak (gizonezkoa eta emakumezkoa) izateko duten eskubidea babestu beharko du.

**7. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**19. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko 7. artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: 1. artikuluari egin diogun zuzenketan aipatua.

**20. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

7. artikuluari. Akzio eta eskubideez baliatzea.

Honela gelditzen da:

2. Nafarroako foru zuzenbide pribatuko Bilduma edo Foru Berriari buruzko 62. Legea honela gelditzen da: "Bikote egonkorreko kideak eta ezkonduetako bikoteetako kideak egoera berean egonen dira gai hauekin lotutako akzioez baliatzeari dagokionez: ezgaitzea, absentzi deklarazioa eta zarrasteltasun deklarazioa".

Zioak: Foru Lege proposamenaren asmoak egokitzea Parlamentuaren zerbitzu juridikoek egindako txostenaren iradokizunei jarraikiz.

**21. ZUZENKETA**

**EUSKAL HERRITARROK  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

II. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu berri bat gehitzea proposatzen da:

"Ez dagoenaren ordezkaria.

Bikoteko kideetako baten absentzi deklarazio judiziala dagoen kasuetan, hura ordezkatu eta haren ondarea administratzeko, bikoteko beste kideak ez dagoen kidearen toki bera izanen du".

Zioak: Bikoteko kide baten absentzi deklarazio judizialaren balizko kasua agertaraztea.

**22. ZUZENKETA**

**EUSKAL HERRITARROK  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

II. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu berri bat gehitzea proposatzen da:

"Tutoretzaren delazio datiboa.

Epaileak bikoteko kideetako bat ezgaitu deklaratzeko badu, beste kideak lehendabiziko tokia izanen du tutoretzaren delazio datiboaren lehentasun ordenean".

Zioak: Alderdi hau ere agertaraztea komeni da, ezgaitu deklaratzeko den pertsonaren tutore izateko, deitzeko ordenean lehendabizikoa zein izanen den jakiteko orduan zalantzarik ez sortzeko, Kode Zibilarren 234. artikuluan agertzen den bezala.

**23. ZUZENKETA**

**EUSKAL HERRITARROK  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

II. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu berri bat gehitzea proposatzen da:

Seme-alaben zaintza eta bisita araubidea

Bikotekideek, elkarrekin bizitzeari uztean, bi-nak diren seme-alabak izanez gero, hitzartu ahal izanen dute bietako zeinen esku geldituko den horien zaintza, bai eta zaintza ez duen kidearen bisita araubidea ere. Adostasunik ezean, epaileak hartu du erabakia, adin txikikoen hobebeharrez, eta seme-alabei entzun ondoren, behar adina ezagutza baldin badute, edo 12 urtetik gorakoak badira; nolana ere, epaileak adostutakoa neurri egoki eta zuzenera ekartzeko ahalmena izanen du, haren iritziz kideren batentzat edo seme-alabentzat arras kaltegarria denean".

Zioak: Seme-alabak adin txikikoak direnean, bikote egonkorra haustek ekar ditzakeen arazoei aterabide egokia ematea.

**24. ZUZENKETA**

**EUSKO ALKARTASUNA/  
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-  
PARTIDO NACIONALISTA VASCO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

II. kapituluari artikulu berri bat txertatzeko zuzenketa.

"... artikulua... Elkarrekin izandako seme-alaben zaintza eta bisita araubidea.

1. Bikote egonkorra bertan behera gelditzen bada bi kideak bizirik daudela, haiek erabaki ahal izanen dute zer den egokiena haien iritziz, gai hauen inguruan: elkarrekin izaniko seme-alaben zaintza, eta bisita, komunikazio eta egonaldien araubidea. Nolanahi ere, epaileak adostutakoa neurri egoki eta zuzenera ekartzeko ahalmena izanen du, haren iritziz kideren batentzat edo seme-alabentzat arras kaltegarria denean.

2. Adostasunik ezean, epaileak hartu du erabakia, adin txikikoen hobebharrez, eta seme-alabei entzun ondoren, behar adina ezagutza baldin badute, edo 12 urtetik gorakoak badira.”

Zioak: Gatazkatsua izaten ohi den gaia, zaintza araubidearena, alegia, arautzea, bai eta bisitena ere.

## 25. ZUZENKETA

### EUSKAL HERRITARROK

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. kapitulari gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu berri bat gehitzea proposatzen da:

“Senidetasun testamentua.

Ezkondu gabeko bikote egonkorren kideek senidetasun testamentua egiletsi ahal izanen dute, Nafarroako foru legedi zibilarekin bat.

Zioak: Nafarroako foru legedi zibilak berea duen alderdi hau berriaz agertaraztea.

## 26. ZUZENKETA

### EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. kapitulan artikulu berri bat txertatzeko zuzenketa.

“... artikulu... Ahaidetasuna.

Bikote egonkorrek ez du inolako ahaidetasun harremanik sortuko bikoteko kide bakoitzaren eta bestearen ahaideen artean.

Zioak: Bikote egonkorrek eratzen duen harremanak ez du Espainiako egungo ordenamendu juridikoan ahaidetasun loturarik sortzen.

## 8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

### 27. ZUZENKETA

#### UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa

Lege proposamenaren 8. artikulua kentzea proposatzen da.

Zioak: Erredakzioa nahasgarria da ikuspuntu tekniko-juridiko batetik, eta kontuan harturik bete nahi den asmoaren garrantzia, aldaketa osatua goa eta zehaztuagoa egin beharko litzateke, gure nahiekin bat ez datozen ondorioak izan litzakete-lako.

### 28. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

8. artikulua. Bikote egonkorren kideak ezkontideekin parekatzea

8. artikulua ordez beste hau txertatzea:

“8. artikulua. Oinordetzaren araubidea.

1. Nafarroako foru zuzenbide pribatuko Bilduma edo Foru Berriaren 253. Legeari bigarren lerrokada gehitzea, erredakzio honekin: “ondorio hauetarako, legeak onartutako bikote egonkorren kide bat hilez gero, alargun gelditzen den beste kidearen egoera ezkontide alargunaren egoeraren parekotzat joko da.”

2. Nafarroako foru zuzenbide pribatuko Bilduma edo Foru Berriaren 304. Legearen 5. idatz-zatia aldatzen da, eta erredakzio hau izanen du: “5. 254. Legeari jarraikiz, fideltasun usufruktutik bazterturik ez dagoen ezkontidea edo bikote egonkorren kidea.”

3. Nafarroako foru zuzenbide pribatuko Bilduma edo Foru Berriaren 341. Legea aldatzen da, eta erredakzio hau izanen du: “Oinordekoa, parte alikuotaren legatu-hartzailea, ezkontide alarguna edo Legeak onartutako bikote egonkorrean alargun gelditutako kidea ezin dira kontulari-partitzaile izan.”

Zioak: Foru lege proposamenaren asmoak egokitzea Parlamentuko zerbitzu juridikoek egin-

dako txostenaren iradokizunei jarraikiz, segurtasun juridikoa handiagoa izan dadin.

## 29. ZUZENKETA

### EUSKAL HERRITARROK

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

##### 8.1 artikuluari aldaketa egiteko zuzenketa

Honako erredakzio hau proposatzen da:

“Foru lege honetan aurreikusigabeko kasuetan, bikote egonkorraren kideak ezkontidetzat hartuko dira Nafarroako foru zuzenbide pribatuko Bil-duma edo Foru Berrian, Pribatuan, ezkonduentzat aurreikusten diren ondorio guztietarako, eta ezkontideak dituen eskubideak eta betebeharrak ere handik etorriko dira.

Zioak: Hobekuntza teknikoa eta Foru berrian ezkontideentzat ageri diren eskubide eta betebeharrak guztietara zabaltzea parekotasuna, eta ez oinordetzarekin lotutako gaitara soilik, proposamenaren testuan aurreikusten den bezala.

## 30. ZUZENKETA

### EUSKAL HERRITARROK

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

##### 8.2 eta 8.3 artikuluko aldatzeko zuzenketa

8. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak aldatu eta horien ordean idatz-zati bakarria jartzea proposatzen da.

“Nafarroako Zuzenbide Publikoko araudian ezkontideentzat ezarritako eskubide eta betebeharrak, baita arlo fiskalean eta administrazio publikoaren zerbitzuko langileenean ere, ezkondu gabeko bikote egonkorreko kideei ere modu berean aplikatuko zaizkie”.

Zioak: Helburua hau da: bikote egonkorren parekatzea Zuzenbide Publikoko xedapen guztietara hedatzea, araudi fiskala eta Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileei dagokiena bereziki aipatuz, horietan garrantzi handikoa baita, baina ez da ahaztu behar ezkontideei buruzko aipamenak egiten dituzten beste batzuk ere badaudela (hezkuntza, herri-ondasunen aprobetxamenduak, haurtzaindegia...).

## 31. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

III. kapituluari artikulua bat, zeina bederatzigarrena izanen baita, gehitzea. Honela idatzita geratuko da:

“9. artikulua. Araubide fiskala.

1. Bikote egonkor bateko kideak ezkontidetzat hartuak izanen dira Nafarroako legedia fiskalak aurreikusitako ondorioetarako, errendimenduak zenbatu eta kenkariak edo salbuespenak aplikatzeari dagokionez.

2. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetako 13. artikuluari lerokada berri bat gehituko zaio. Honela idatzita geratuko da: “Arau hauei dagokienez, bikote egonkorretako kideen egoera ezkontideenarekin parekatuko da”.

3. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetako 29. artikuluko 1. idatz-zatiaren amaieran honako hau gehituko da: “edo bikote egonkor bateko kide”.

4. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetako 40. artikuluko 1.a) idatz-zatiko lehen lerokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: “jaraunspenaren kausatzailea hil baino gehiezin ere urtebete lehenago bereak izan ziren mota guztietako ondasunak, salbu eta froga fede-emai-le bidez agertzen baldin bada kausatzaileak ondasun haiek eskualdatu zituela eta oinordeko, legatu-hartzaile, hirugarren gradurainoko ahaide edo horietako edozeinen edo kausatzailearen ezkontide edo bikotekide egonkorrek ez beste pertsona batek dauzkala”.

5. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetako 40. artikuluko 1. idatz-zatiko b) lerokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: “b) Heriotzaren aurreko hiru urteko epearen barnean kausatzaileak kostubidez usufuktuan eskuratutako ondasun eta eskubideak eta aipaturiko epe horretan oinordeko batek, legatu-hartzaile batek,

hirugarren gradurainoko ahaide batek edo horietako edozeinen edo kausatzailearen ezkontide edo bikotekide egonkorrak jabetza soilean eskuratutako ondasun eta eskubideak”.

6. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetako 40. artikuluko 4. idatz-zatiaren bukaeran honako hau gehituko da: “edo bikotekide egonkorra”.

7. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetako 45. artikuluko 3. idatz-zatiko c) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: “c) Ez dadila ager oinordekoen edo kuota-parte bateko legatu-hartzaileen alde hartua izan denik, ez eta oinordeko edo legatu-hartzaile horien ezkontide, bikotekide egonkor, arbaso, ondorengo edo neba-arreben alde ere”.

8. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetako 48. artikuluko 2. idatz-zatia aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: “2. Arbasoen eta ondorengo legezkoen eta geroagoko ezkontza baten bitartez legeztaturiko seme-alaben artean, adoptatzaileen eta adopzio osoz adoptaturiko artean eta ezkontideen edo bikotekide egonkor bateko kideen artean.....Salbuetsiak”.

9. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetako 113. artikuluko 1. idatz-zatiko a) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: “a) Erregistro fiskalen arabera pertsona baten ondareak behera egin badu eta sinkronikoki, beranduago, baina inola ere ez bi urte pasa ondoren, ezkontide edo bikotekide egonkorren, ondorengoan, adopziozko seme-alaben edo horietako edozeinen ezkontideen edo bikotekide egonkorren ondareak, berriz, gora”.

10. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetako 113. artikuluko 1. idatz-zatiko b) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: “b) Ondorengorik edo adopziozko seme-alabarik gabeko ezkontide alargunik edo bikotekide egon-

korrik utzi gabe pertsona bat hil ondoren Erregistro berek kausatzailearen ondasunaren bilakaeran gutxitzeren bat izan dela agertzen badute; hain zuzen ere, oinordekoen edo legatu-hartzaileen ondare-gehikuntzarekin sinkronikoki edo beranduago, baina inola ere ez hiru urte igaro eta gero, lotura daukaten gutxitzeak”.

11. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetako 113. artikuluko 1. idatz-zatiko c) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: “c) Industria Zergako altak eta bajak ikertzean ikusten bada ondorengoak edo ezkontideak alta egin duela arbasoak edo beste ezkontideak edo bikotekide egonkorreko beste kideak baja hartu zuteneko negozio berberaren kariaz.”

12. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetako 116. artikuluko 74. idatz-zatia aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: “74. Enplegatuek hiltzean enpresek enplegatu horien ezkontide, bikotekide egonkor, arbaso edo legezko ondorengoei, naturalei zein adopziozkoiei, emandako 500.000 pezetarainoko kantitateak, baldin eta, betiere, frogatu egiten bada, batetik, heriotza gertatzean enplegatu horiek enpresako enplegatu finko, sasoikako edo aldi baterakoak zirela, eta, bestetik, heriotza gertatu zen egunaren edo heriotza eragin zuen eritasunarengatik edo istripuarengatik baja hartutako egunaren edo erregelamenduei jarraituz erretiratu ziren egunaren aurreko hiru hilabeteetan etenik gabe eman zizkiotela beren zerbitzuak enpresa horri”.

13. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 14. artikuluko 2. idatz-zatiko d) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: “d) Ezkontide edo bikotekide egonkorrengandik jasotako konpentsazio-pentsioak eta mantenurako urteko kantitateak”.

14. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 55. artikuluko 2. idatz-zatia aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: “2. Konpentsazio-pentsioengatik. Kontzeptu horrengatik ezkontidearentzat ordaindutako kantitateak eta mantenurako urteko kopuruak, zergadunaren seme-alaben alde ezarritakoak salbu –bi kantitate horiek epailearen erabakiz ezarri beharko dira–; halaber, bikotekide egonkorrengatik ordaindutako kantitate legez galdagarriak”.

15. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 62. artikuluko 1.e). idatz-zatiko bigarren lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: "Lagundutako pertsonaren ezkontideak edo bikotekide egonkorak eginen du dedukzioa, eta, ezkontiderik edo bikotekiderik ezean, graduaren arabera hurbilen duen senideak"

16. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 62. artikuluko 4.f) idatz-zatiko b) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: "b) Dedukzioa egiteko eskubidea emanen dute subjektu pasiboaren beraren edo berarekin bizi diren ezkontide, bikotekide egonkor, arbaso edo ondorengoaren minusbaliotasunaren ondorioz subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzan egin beharreko obrek eta egokitze-instalazioek".

17. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 71. artikuluko 1. idatz-zatia aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: "1. Zerga honen eraginetarako, ondokoak dira famili unitateak: a) Legez berezita ez dauden senar-emazteek eta, kasua bada, adin txikiko seme-alabek –gurasoen baimenez haiengandik aparte bizi direnak izan ezik– eta judizialki ezgaitutako adin nagusiko seme-alabek, luzatu edo birgaitutako guraso-ahalgopean daudenek osatutakoa. b) Bikote egonkor batek –bere legedi berariazkoari jarraikiz– eta, kasua bada, adin txikiko seme-alabek –gurasoen baimenez haiengandik aparte bizi direnak izan ezik– eta judizialki ezgaitutako adin nagusiko seme-alabek, luzatu edo birgaitutako guraso-ahalgopean daudenek osatutakoa. c) Legezko banantzea izan denean edo ezkontza-loturarik ez dagoenean, famili unitatea aitak edo amak eta batarekin edo bestearekin bizi diren seme-alaba guztiek osatzen dutena izanen da, baldin eta aurreko idatz-zatietako baldintzak betetzen badituzte".

18. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 75. artikuluko 6. erregelak aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: "71. artikuluko 1.a) eta 1.b) idatz-zatiek aipatzen dituzten famili unitateen kasuan, 55. artikuluko 4. idatz-zatiko 2. erregela aplikatzearen ondorioz ezkontideetako edo bikote iraunkorreko kideetako batek ezin izan duenean osoki aplikatu 3. idatz-zatian aipatzen den murrizketa, gerakina beste ezkontidearen edo bikotekide egonkorraren gutxieneko pertsonalari erantsiko zaio".

Zioak: Foru Lege Proposamenaren helburuak Parlamentuko zerbitzu juridikoen txostenak egini-

ko iradokizunen arabera egokitzea, ziurtasun juridiko handiagoa erdiestearren.

### 32. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

III. kapituluari 10. artikulua gehitzea. Honela idatzita geratuko litzateke:

10. artikulua. Funtzio publikoaren araubidea.

1. Bikote egonkorra osatzen duten kideak ezkontide gisa hartuko dira lizentziei, baimenei, administrazio-egoerei, lanpostu-hornidurari, famili laguntzari eta eskubide pasiboari dagokienez, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuak aurreikusitako ondorioetarako.

2. Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratuko 50. artikuluko 1. idatz-zatiko a) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

"a) Dirusarrerarik ez duen ezkontide edo bikotekide egonkorrarengatik.....% 3,50".

3. Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratuko 75. artikulua aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: "Alarguntasun pentsioa jasoko dute funtzionarioen eta erretiro-pentsiodunen ezkontide eta bikotekide egonkorak, baldin eta erregelamenduz ezarriko diren baldintzak betetzen badituzte".

Zioak: Foru Lege Proposamenaren helburuak Parlamentuko zerbitzu juridikoen txostenak egini-ko iradokizunen arabera egokitzea, ziurtasun juridiko handiagoa erdiestearren.

#### XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

### 33. ZUZENKETA

#### UNION DEL PUEBLO NAVARRO

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa

Lege Proposameneko Xedapen Gehigarria kentzea proposatzen da.

Zioak: Legearen edukiarekin koherentzia edukitzearen.

**34. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Xedapen Gehigarriaren ordezkari honako hau jar-tzea:

Xedapen Gehigarria

Nafarroako Gobernuak eta Udalek Bikote Egonkorren Erregistroak sortu ahalko dituzte, bikoteen borondatezko inskripzioaren bitartez horien eraketari buruzko frogaz errazteko.

Foru Lege honek araututako bikoteak Erregis-tro Zibilean inskribatzea aurreikusten badu Estatu-ko legediak, Foru Lege honek lotzen dizkien ondorioak inskribatzen diren bikoteei dagozkiela ulertuko da.

Zioak: Foru Lege Proposamenaren helburuak Parlamentuko zerbitzu juridikoen txostenak egini-ko iradokizunen arabera egokitzea.

**35. ZUZENKETA****EUSKAL HERRITARROK**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

Xedapen Gehigarri berri bat eranstea proposa-tzen da:

“Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateratuko 1. artikuluko 3. idatz-zatiko e) letran, 37. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letran eta 40. arti-kuluko 3. idatz-zatian ezkontideari buruz egiten diren aipamenak bikote egonkor bateko edozein kideri ere aplikatuko zaizkie”.

Zioak: Bikote egonkor edo izatezkoak ukitzen dituen Lege hori aldatzeko dagoen beharra adie-raztea.

**36. ZUZENKETA****EUSKAL HERRITARROK**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

Xedapen Gehigarri bat eranstea:

“Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bateratuko 7, 173, 174 eta 177. artikuluetan ezkon-tideari buruz egiten diren aipamenak bikote egon-kor bateko edozein kideri ere aplikatuko zaizkie”.

Zioak: Bikote egonkor edo izatezkoak ukitzen dituen Lege hori aldatzeko dagoen beharra adie-raztea.

**37. ZUZENKETA****UNION DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

Xedapen Iragankor bat gehitzea proposatzen da. Honako testu hau izanen luke:

“Erregistro Zibilari buruzko Legearen beharrez-koak diren aldaketak egin bitartean, Udalek elkar-tze zibilen Udal Erregistroak eratu ahalko dituzte”.

Zioak: Foru Lege Proposamenaren edukiare-kin bat etorritik.

**AZKEN XEDAPENEI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA****38. ZUZENKETA****UNION DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa:

Azken Xedapenetako Lehena aldatzea propo-satzen da. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Foru Lege honetako xedapenak, indarra hartu ondoren, lehenagotik sinaturik dauden eta ondo-riok erakarri dituzten elkartze zibileko kontratuei aplikatuko zaizkie, betiere Lege honetan ezarrita-ko baldintzak betetzen badituzte”.

Zioak: Proposatzen dugun araudian aurreikus-i-takoari egokitzea.

**TITULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****39. ZUZENKETA****UNION DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

Lege Proposamenaren izena aldatzea propo-satzen da. Honela geratuko litzateke:

“Elkartze zibileko kontratuari buruzko Foru Lege Proposamena”.



Zioak: Lege Proposamenaren edukari hobeki egokitzea.

#### 40. ZUZENKETA

##### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

Lege Proposamenaren II. kapitulua laburbiltzen duen izena aldatzea proposatzen da. Honela geratuko litzateke:

“II. kapitulua. Elkartze zibileko kontratua arautzen duten beste xedapen batzuk.”

Zioak: Egokitzapen tekniko hobearen araututako arekin.

#### 41. ZUZENKETA

##### **EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

III. kapitulari aldatzea egiteko zuzenketa

“Oinordetzaren, zergen eta funtzio publikoaren araubidea” kendu eta “Bikote egonkorren parekateza” soilik jartzea proposatzen da.

Zioak: 8. artikulurako proposaturiko aldaketekin koherentzia mantentzearen.

##### **ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

#### 42. ZUZENKETA

##### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

Lege Proposameneko Zioen Adierazpena aldatzea proposatzen da. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Foru Lege honen helburua ezkontzaz kanpoko elkarbizitza arautzea da, elkartze zibileko kontratuaren bitartez; horren definizioa, eratzeko eta amaiazpen-kausak, hainbat herritarrek hori aukeratzen duten kasuetan. Halaber, bizikide diren pertsonen babes juridiko, ekonomiko eta sozialaren arau bidezko garapena hobetzea. Babes hori, funtsean, euren borondatearen autonomian oinarritzen da.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari Buruzko Lege Organikoak (LORAFNA delakoak) 48. artikuluan xedatzen duenez, Nafarroak eskumen osoa dauka Foru Lege honek arautzen duen gailan.

Oraingo arauaketa honek, lehen aipaturiko helburuen kalterik gabe, betiere bilatzen duena hau da: hautatzeko daukaten askatasunaz baliatuz euren elkarbizitza bikote egonkor moduan ezkontza-ordenamendutik at –persona helduak diren aldetik beren esku dauden erabakien esparruko puntuetan– antolatzea erabaki dutenek ez dezatela jasan kanpoko inoren esku-hartze bidegabekorik euren borondatearen autonomian.

Foru Lege hau oinarriturik dago gure ordenamendu juridikoko balore gorenean, hau da, askatasunean (Espainiako Konstituzioko 1. artikulua); Zuzenbideko Estatuaren bermean, zeina ziurtasun juridikoa baita (Espainiako Konstituzioko 9.3 artikulua), eta herritarrek intimitatea izateko daukaten oinarritzko eskubidean (Espainiako Konstituzioko 18.1 artikulua).”

Zioak: Lege Proposameneko artikuluei egokituagoa.

## Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamena

### AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### 1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### 1. ZUZENKETA

##### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa

Lege proposamenaren 1. artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Konstituzioaren 14. artikulua aipatzea ez dugu beharrezkotzat jotzen.

### 2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### 2. ZUZENKETA

##### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko 2. artikulua aldatzea proposatzen dugu. Honela geldituko litzateke:

“1. Lege hau aplikatuko da adinez nagusi diren bi pertsonak libreki elkarrekin bizitzea eta elkarri laguntzea erabakitzen duten kasuetan, baldin eta indarreko bestelako elkarketa zibilen kontraturik ez badute edota bietako batek ere ez badu ezkontza-loturarik.

Ezingo dira elkarketa zibileko kontratu baten partaide izan, odolez edo adopzioz zuzeneko lerroan ahaide direnak, ez eta alboko lerroan hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna dutenak.

Elkarketa zibileko kontratuak eragina izanen du formalizatu eta, gutxienez, hiru urte iraganik.

2. Aurreko idatz-zatian azaldutako lortura zibileko kontratua eskritura publiko bidez emanen da eta kide bakoitzari dagokion Erregistro Zibilean inskribatu beharko da.”

Zioak: Teknikoki egokiagoa eta segurtasun juridiko handiagoa.

### 3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### 3. ZUZENKETA

##### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko 3. artikulua aldatzea proposatzen dugu. Honela geldituko litzateke:

“1- Elkarketa zibileko kontratua amairatzita geldituko da:

- a) Kideetako bat hiltzen bada.
- b) Kideetako bat ezkontzen bada.

c) Biek hala erabakitzen badute, eskritura publiko batean. Eskritura horren kopia kideen Erregistro Zibileko arduradunari igorriko zaio.

d) Bi aldeetako batek hala eskatzen badiu inskripzioa egin zeneko Erregistro Zibileko arduraduna den epaile berari. Arduradun horrek ebazpenaren berri emanen dio bere kidearen Erregistro Zibileko arduradunari eta honi berari. Hala, momentu horretatik aitzina izanen du eragina.

2. Ezingo da elkarketa zibileko kontratu bateko partaide izan, indarrean dagoen beste baten partaide dena edo ezkontuta dagoena.

3. Elkarketa zibileko kontratua ezingo da eman termino edo baldintzapean.”

Zioak: Arauketa tekniko-juridiko hobe eta segurtasun juridiko handiagoa kontratugileentzat hirugarrenekiko.

#### 4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

##### 4. ZUZENKETA

###### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko 4. artikulua aldatzea proposatzen dugu. Ondokoa dioen kasuan:

“bestearen auzotartasun zibila aukera dezake; aukera bera izanen dute ezkontzaren antzeko elkar bizitzearen bidez elkartuta daudenek, sexu-joera kontuan izan gabe.”

Honela behar du:

“bestearen auzotartasun zibila aukera dezake; aukera bera izanen dute elkarketa zibileko kontratuaren bidezko lotura dutenek, kontratu horrek eragina duen momentutik aitzina.”

Zioak: Legeari iruzur egitea eta segurtasun juridikoaren gabezia saihesteko berme handiagoa.

#### 5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

##### 5. ZUZENKETA

###### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko 5. artikulua aldatzea proposatzen dugu. Honela geldituko litzateke:

“d) jadanik eragina duen elkarketa zibileko kontratu bidez lotuta dagoen pertsonarena.”

Zioak: Legeari iruzur egitea eta segurtasun juridikoaren gabezia saihesteko berme handiagoa.

#### 6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

##### 6. ZUZENKETA

###### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko 6. artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Legeari iruzur egitea eta segurtasun juridikoaren gabezia saihesteko berme handiagoa.

##### 7. ZUZENKETA

###### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluari ondoko testua gehitzeko zuzenketa:

“Ezkontideen arteko edo epaileak onetsitako antzeko afektibitate harremanean bizi diren pertsonen arteko akordiorik ezean, familiaren etxebizitza eta bertako erabilera arrunteko objektuak erabili ahalko dituzte seme-alabek eta horiekin gelditzen den ezkontideak edo antzeko afektibitate harremanean bizi den pertsonak.

Seme-alaba batzuk batekin eta besteak bestearekin gelditzen badira, epaileak egoki juzkatzen duena ebatziko du.

Seme-alabarik ezean, erabaki ahalko da ondusun horien erabilera, zuhurki ezartzen den epe baterako, titularra ez den ezkontideari edo antzeko afektibitate harremanean bizi den pertsonari dagokiola. Betiere, egoerak hala eskatuko balu eta babes gehien behar lukeen interesa balitz.

Titularra ez den ezkontideari edo antzeko afektibitate harremanean bizi den pertsonari etxebizitzaren eta ondasunen erabilera dagokiola ezartzeko, beharrezkoa izanen da bi aldeen baimena, eta, behar izanez gero, baimen judiziala.”

Zioak: Beharrezkoa dirudi Kode Zibileko 96. artikulua zuzeneko erreferentzia egitea.

#### 7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

##### 8. ZUZENKETA

###### **UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko 7. artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Kode Zibileko beste xedapen batzuekiko inkoherentzia.

**8 ETA 9. ARTIKULUEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**9. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko 8 eta 9. artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Bi aldeei eskatu beharreko betebeharrak judizialei erantzuteko ahalmenaren segurtasunik eza.

**10, 11, 12, 13 ETA 27. ARTIKULUEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**10. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa.

Lege proposameneko 10, 11, 12, 13 eta 27. artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Lege proposamenaren gainerako testuarekin eta foru lege proposamenarekin koherentzia.

**14. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**11. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lege proposameneko 14. artikulua aldatzea proposatzen dugu. Honela geldituko litzateke:

“Desagertu den pertsonaren ezkontide adinez nagusia izanen da desagertuaren berezko ordezkari eta aldezkari, baldin eta hori ere ez bada desagertu edo ez badago legez bereizirik; halaber, desagertuarekin elkarketa zibileko kontratua indarrean duen pertsona adinez nagusia izanen da desagertuaren berezko ordezkari eta aldezkari. Horietakoren baten ezean, eginbide horiek familiaritateko gertukoena...”

Zioak: Hobekuntza teknikoa.

**15. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**12. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lege proposameneko 15. artikulua aldatzea proposatzen dugu, honako hau ordeztuz:

Honela dioen lekuan: “edota absentearekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsonak, sexu-joera kontuan izan gabe”

Honela behar du: “edota absentearekin elkarketa zibileko kontratu bat indarrean duen pertsonak.”

Zioak: Hobekuntza teknikoa, legezko izendapenari jarraituz.

**16. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**13. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lege proposameneko 16. artikulua aldatzea proposatzen dugu.

Hau dioen lekuan: “Desagertu den pertsonaren ezkontidea edo desagertuarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsona –sexu-joera kontuan izan gabe–, baldin eta horiek ez badira desagertu”

Honela behar du: “Desagertu den pertsonaren ezkontidea edo elkarketa zibileko kontratua indarrean duen pertsona”

Zioak: Hobekuntza teknikoa, legezko izendapenari jarraituz.

**17 ETA 18. ARTIKULUEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**14. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko 17 eta 18. artikulua aldatzea proposatzen dugu, honakoa ordezkapen hau eginez.

Hau dioen lekuan: “ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsonak –sexu-joera kontuan izan gabe–”

Honela behar du: “elkarketa zibileko kontratua indarrean norekin duen, bada pertsona horrek.”

Zioak: Hobekuntza teknikoa, legezko izendapenari jarraituz.

19, 20, 21, 22, 23, 24 ETA 25. ARTIKULUEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

**15. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko 19, 20, 21, 22, 23, 24 eta 25. artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Ez datoz bat Kode Zibileko zenbait xedapenekin; areago, egoera diskriminatzaileak eragin ditzakete.

28 ETA 45. BITARTEKO ARTIKULUEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

**16. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa.

Lege proposamenaren 28. artikulutik 45. artikulura bitarteko artikulua ezabatzea proposatzen dugu.

Zioak: Zuzentasun tekniko-juridikoaren gabezia, eta segurtasun falta.

**ZAZPIGARREN KAPITULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**17. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zazpigarren kapitulua Xedapen Gehigarri batekin ordeztuko zuzenketa. Hona testu berria:

Xedapen Gehigarria: Tributuen arloko ondorioak

“Tributuei dagokienez, ondorio guztietarako, elkarbizitza ezkontzaren parekoa izanen da, baldin eta elkarbizitzak eta baita haren egiaztapenak ere lege honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.”

Zioak: Testua egokiagoa dela uste dugu.

**XEDAPEN GEHIGARRIARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**18. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko Xedapen Gehigarria kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Ezartzen duen agindua ez da zuzena.

**AZKEN XEDAPENARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**19. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lege proposameneko Azken Xedapena aldatzea proposatzen dugu. Honela geldituko litzateke:

“Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean hartuko du indarra.”

Zioak: Gai berari buruzko foru lege proposamenarekin bat egiteko.

**TITULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**20. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lege proposamenaren izena aldatzea proposatzen dugu. Hona hemen:

“Elkarketa zibileko kontratuari buruzko Lege Proposamena”.

Zioak: Lege proposamenaren edukiari hobeki egokitzen zaio.

**ZIOEN AZALPENARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**21. ZUZENKETA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

Lege proposameneko Zioen Azalpena aldatzea proposatzen dugu. Honela geldituko litzateke:

“Lege honen helburua da ezkontzaz kanpoko elkarbizitza arautzea, elkartze zibileko kontratua-  
ren bidez, bai eta haren definizioaren, eraketaren  
eta bereizketarako arrazoen bidez, zenbait herri-  
tarrek horren aukera egiten duten kasuetan. Hala-  
ber, elkarrekin bizi diren pertsonen babes juridiko,  
ekonomiko eta sozialerako arauen garapena  
hobetzea. Arauketa hori, batez ere, pertsona  
horien borondatearen autonomian oinarritzen  
baita.

Egungo araudiak, aipatutako helburuak lortzea  
eragotzi gabe, edozein esku hartze bidegabe eki-  
din nahi du, aukeratzeko askatasuna erabiliz,  
ezkontzaren ordenamendutik kanpo, bikote egon-  
kor modura bizitzea erabaki duten pertsonen  
borondatearen autonomian, alegia, pertsona hel-  
duak diren aldetik euren erabakimen esparrua uki-  
tzen duten gai guztietan.

Lege honen abiaburu dira: gure ordenamendu  
juridikoaren balio gorena, alegia, askatasuna  
(Espainiako Konstituzioaren 1. artikulua); Zuzenbi-  
de estatuko bermea, alegia, segurtasun juridikoa  
(Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulua) eta  
herritarrek intimitaterako duten oinarritzko eskubi-  
dea (Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua).”

Zioak: Lege proposameneko artikuluei hobeki  
egokitzen zaio.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe berrian Jarraipen Bereziko Espetxeratuena Fitxategia (JBEF) ereduko modulu bat sortzea eragoz dezan**

*OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Begoña Errazti Esnal foru parlamentari andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe berrian Jarraipen Bereziko Espetxeratuena Fitxategia (JBEF) ereduko modulu bat sortzea eragoz dezan".

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak,

2000ko ekainaren 8an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko maiatzaren 10eko 39 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko goi mailako informatika-teknikari lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko goi mailako informatika-teknikari lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia onestea

**Bigarrena.** Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko goi mailako informatika-teknikari lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa**

Deialdi honen oinarriak ondoko hauek dira:

#### **1. oinarria.-** Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuko goi mailako informatika-teknikari lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatutako izan-gaiak Biltzarreko funtzionarioentzat, eta bereziki goi mailako teknikarien kidegokoentzat ezarritako eginkizunak beteko ditu eta eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

1.3. Lanpostua A mailako da eta lansariak maila horri dagozkionak izanen dira, eta Nafarroako Parlamentuaren indarreko plantilla organikoan zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.4. Lanaldia goiz eta arratsaldeko ordutegian egingen da, baina Parlamentuko organo eskudunek edozein unetan alda dezakete.

1.4. Deialdi honetako lanpostu kopuruari gero-ago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio, alegia, epaimahai kalifikatzaileak lehiakideen zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

#### **2. oinarria.-** Hautagaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileria Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu hori lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko da. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Kontuen Ganbarako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) A mailako funtzionario aizatea.

b) Lizentziatu, goi mailako ingeniari edo goi mailako arkitekto tituluaren jabe izatea.

c) Goi mailako informatika teknikari edo sistema informatikoetako goi mailako teknikari lanpostu baterako izendatua izana.

d) Jatorrizko destinoan, nondik lekuz aldatu nahi baitu, bere jabetzako lanpostuan benetako zerbitzuan urtebete emana izatea.

Lanpostua gorderik izan gabe, nahitaezko edo borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek lekualdatze-lehiaketa honetan parte hartu ahalko dute, baldin eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen badituzte, eta, horrela, jarduneko zerbitzuan berriz sartu eta lanpostua behin betikoz adjudikatuko zaie.



2.2. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarrian ezarritako epe eta eran egiaztatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. oinarri honetako 1. atalean esaten diren baldintza guztiak bete beharko dituzte hautapen prozesuak diraeino. Hautapen-prozesua izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

### 3. oinarria.- Eskabideak.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide gisa, eredu ofizialarekin bat (deialdi honen II. eranskina). Bertan jarriko dituzte izendeiturak, adina, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, halakorik badute.

3.2. Hurrengoak erantsi behar zaizkio eskariari:

– Deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztelako ziurtagiriak.

– Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen egiaztagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Eskabideak Nafarroako Parlamentuko Lehendakari jaunari zuzenduko zaizkio, eta egun eta ordu baliodunetan aurkeztuko dira Parlamentuko Erregistro Orokorrean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epearen barruan.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

### 4. oinarria.- Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta onartutako izangaien izen-deiturak erakutsiko ditu.

4.2. Interesatuak egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahaliko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Aipatu epearen barruan eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko Lehendakariak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Hautagai bakarra ere onartu ez bada, lehiaketa hutsik gelditu dela joko da.

**5. oinarria.-** Epaimahai kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduketa.

5.1. Merezimenduen lehiaketa epaitu behar duen epaimahaia ondoko kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Isabel Beriain Luri andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen idazkaria.

Ordezkoa: José María Aierdi Fernández de Barrena jauna, Nafarroako Parlamentuko bigarren idazkaria.

Mahaikidea: Mikel Iriarte Cilveti jauna, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioa, Langileen Batzordeak izendatua.

Ordezkoa: Ander Arana Bareño jauna, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioa, Langileen Batzordeak izendatua.

Idazkaria: Ester Díaz Rivas, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Ordezkoa: Pablo García Yárnoz jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epearen barruan eratu beharko da.

Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3. Jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Erabakiak gehiengo hartuko dira eta mahai-buruak kalitatezko botoa izanen du.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

### 6. oinarria.- Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Izangaiek alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak deialdi honen I. eranskinean azaldu baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

6.2. Alegatutako merezimendu guztiak agirien bidez frogatu beharko dira, izangaiek lekualdatze-lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu duten unean.

Izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahalko ditu epaimahaiak.

6.3. Epaimahaiak ezin izanen du, inolaz ere, alegatu eta agirien bidez frogatu ez den merezimendurik baloratu, ez eta atal bakoitzean zehaztu gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

6.4. Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzintasun handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Horrela ere berdinketak irauten baldin badu, lehiakide zaharrenaren alde ebatziko da.

6.5. Merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak partaideek lorturiko puntuazioak paratuko ditu Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean, eta bost eguneko epea irekiko du interesdunek beren eskubidearen mesedetan balorazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten.

**7. oinarria.-** Gainditu dutenen zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

7.1. 6.5 oinarrian aipatzen diren erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahaiak izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari. Horrek, hala behar izanez gero, hasieran deitutako lanpostuen kopurua handitzeko behar den erabakia hartuko du. Halaber, Mahaiak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

7.2. Biltzarreko Mahaiak puntuaziorik altuena lortu duen izangaiari emanen dio lanpostua, eta haren izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

**8. oinarria.-** Lanpostua hartzea.

8.1. Izangaiek izendatu eta hamar egun naturaleko epearen barruan hartu beharko du lanpostua, izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaionetik hasita.

8.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua.

**9. oinarria.-** Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsoa, aukera aurkeztekoa, Biltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzibideetarako Salari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Parlamentuko Lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko burutzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

## I. ERANSKINA

### Merezimenduen baremoa

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak:

1) Edozein administrazio publikotan, langile finko gisa, deialdian eskaintzen den lanpostua bezalakoetan edo antzekoetan: puntu bat urte bakoitzeko.

2) Edozein administrazio publikotan, aldi baterako langile gisa, deialdian eskaintzen den lanpostua bezalakoetan edo antzekoetan: 0,75 puntu urte bakoitzeko.

3) Edozein administrazio publikotan, langile finko gisa, arestikoa ez beste lanpostuetan: 0,25 puntu urte bakoitzeko.

4) Edozein administrazio publikotan, aldi baterako langile gisa, arestikoa ez beste lanpostuetan: 0,20 puntu urte bakoitzeko.

– Oharrak:

1go. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

2gn. a) idatz-zati honi dagokion puntuazioa gehienez ere 30 puntukoa izanen da.

3gn. Lanaldi ez osoz emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

4gn. Deialdia argitaratu ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5gn. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon deneko edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu deneko aldietako zerbitzuak egoera horietan sar-

tzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolaturiko prestakuntza ekitaldietan parte hartzea: 0,10 puntu kreditu akademiko edo haren baliokideko (10 ikastordu), gehienez ere 7 puntu.

– Oharrak:

1go. Baloratu beharreko prestakuntza ekitaldien ikastordu zatikiak hainbanatuko dira.

2gn. Ikastorduen iraupena agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen bailiren baloratuko dira.

3gn. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak bailiren baloratuko dira.

4gn. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekitaldietan parte hartzea puntuazio berarekin puntuatuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatuak sartuko dira.

2) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztea, beka jasotako edo sarituriko zientzia edo ikerketa lanak egitea, aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea: 2 puntu, gehienez ere, Epaimahaiak baloratu beharrekoak, lana edo jarduera bakarka edo taldean egin den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, Estatu edo nazioarteko maila duen kontuan hartuz.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekitaldiak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea, gehienez ere, puntu bat, Epaimahaiak baloratu beharrekoa, haien iraupenaren arabera.

– b) idatz-zati osoko oharrak:

1go. Deialdiko lanpostuarekin zerikusirik duten merezimenduak bakarrik baloratuko dira idazati honen barruan.

2gn. b) idazati honetako gehieneko puntuazioa 10 puntukoa izanen da.

## II. ERANSKINA

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Adina: \_\_\_\_\_

NAN zenbakia: \_\_\_\_\_

Helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea): \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_.

Telefono zenbakia: \_\_\_\_\_

AZALTZEN DUT:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren \_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_(e)ko erabakiaren berri izan dut –haren bidez, goi mailako informatika-teknikari lanpostu huts bat betetzeko dei egin da– eta hartan parte hartu nahi dut:

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horiek horrela,

ESKATZEN DUT:

Eskaera honetan aipatzen den lekualdatze-lehiaketan onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen egiaztagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2000ko \_\_\_\_\_(ren) \_\_\_\_ (e)an

Nafarroako Parlamentuko Lehendakari jauna

## Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko

### Izangaien zerrenda

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiko epaimahaiak hurrengo ERABAKIA hartu du:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiaren 7.1 oinarriarekin bat, Biltzarreko Mahaiari igortzea izangaien zerrenda, merezimenduen baremoan ateratako puntuen arabera ordenatua:

Isabel Fadrique Garde andrea.....	20,07
Eduardo Urtasun Anzano jauna .....	18,70
José Vicente Pascal Roncal jauna.....	16,61
Sanz de Galdeano Bomba jauna.....	8,72

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 12an

Epaimaihaiko idazkaria: Pablo García Yárnoz

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b></p> <p><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urte bat..... 6.200 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .</p>	<p><b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---